




Lirain abesbatzak 25 urte bete ditu aurten; denbora horretan, bidaia asko egiteko aukera izan dute. ▶9

Erica Liquete sopeloztarrak Sorgina Txirulina proiektua hasi du, euskaldunak ez diren gurasoek euskara ikasteko, ipuinen bidez. ▶15



# hiruka

Uribe Kostako astekaria



86. zenbakia

2017ko  
otsailaren 23tik  
martxoaren 1era arte

## Gura duguna izateko

«Algorta nire ametsetako herria izan da betidanik»



**Arantzazu Ametzaga Iribarren**

Buenos Airesen jaio zen; Nafarroan bizi da. Caracasen zendu zen Bingen Ametzaga algortarra zuen aita. ▶16-17

Herri gehienetan, baina ez guztietan, aste-akabu honetan izango dira Aratustek..



**Hirukira Olgetan**

Umeentzako denbora-pasen atal berezia, hilabete akabu honetan.

**Mankomunitateak Oporretan Txangora** ekimena antolatu du, txikienek Aste Santuko oporrez gozatzeko. ▶10

**Matilde Lineo zinegotzi** lemoiztarra izango da batzordekide berria, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatean. ▶10

**Book Trailer Lehiaketa** martxan ipini dute hirugarren ez, gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz. ▶11

**Taldeko Txapelketa prestatu** dute Bizkaian, bertso-eskolen oinarria lantzeko; ALBEK sei talde aurkeztuko ditu. ▶14



# Edukiontzi guztiak, aldatuta

**Zarama-ontzien ordezkapena amaituta,** aldaketak egiten dabilta «hobetzeko puntuak» aurkitzeko asmoz.

Zarama batzeko edukiontzi denak ordezkatzeko prozesuari amaiera eman diote Getxon; halere, oraindino, edukiontzi zaharrak ikus daitezke udalerriko hainbat lekutan. 1.367 ontzi ipini dituzte, guztira; 422 leku edo multzotan banatuta. Datuon arabera, edukiontziak/biztanleko ratioari dagokionez, Getxo lehenengo udalerrien artean dago Bizkaian. Getxoko ratioa da 190 biztanle inguru edukiontzi bakoitzeko, hain zuzen ere. Getxoko Udalak jakinarazi duenez, 312 edukiontzi gehiago ipini ditu, papera eta kartoia zein ontziak batzeko. Horrez gainera, materia organikoa jasotzeko edukiontzi marroiak jarri dituzte: 422 ontzi.

Kontainer denak behin kokatu ostean, kokapen horiek baliagarriak diren ala ez aztertuko du Udalak. Hala, probatze-prozesu horregaz, udalerriko auzokideen beharrei erantzun egokia eman ezean, zuzenketak eta aldaketak

egingo dituzte. Daborduko, 35 zuzenketan egin dituzte multzotan, gutxi gorabehera; batez ere, aldaketa eta doikuntza horien helburuak honakoak izan dira: ibietan edo errespetatu beharrek pasabideetan eta oinezkoen pasalekuetan arazoak saihestea; posible izan den lekuetan edukiontziak espaloietatik kentzea; edukiontziaren geldilekuari edo horien atzeko igarolekuari irisgarritasun hobea ematea; beira, arropa eta olio batzekoak edukiontzi berrien inguruan ipintzea; eta gai denak kabitze moduko alde batzuk egokitzea, herritarrentzat erosoagoa izan dadin, dena leku berean birzikla daitekeelako. Gainera, orain goizez batzen dute zarama; Areetako eta Algortako erdiguneetan mantentzen den ibilbide batean izan ezik. Modu horretan, aldi berean erantzuna eman zaio zarata murrizteko eskatzen zuen herritarren eskabideari.

### Lurpeko biltegiak, gehituz

Lurpeko edukiontziei dagokienez, Udalak uste du martxoaren amaieran abian ipiniko dituela Itzubaltzeta/Romoko Kresaltsu eta Ibaiondo kaleetan; urte amaieran, Areetako Kale Nagusiakoak, Andres Larrazabal kalearen eta Xake plazaren artekoak, baita Algor-



Urtean zehar udalerriko hainbat edukiontzi lurperatuko ditu Udalak.

tako etorbidekoak ere (kasu horretan Telletxe eta Torrene artekoak). Horiek denak batuko zaizkie Juan Bautista Zabala, Torrene eta Bidezabal kaleetan daudenei.

### Inauste-hondarren batzea

Iaz 444.140 kilogramo inauste-hondar pilatu ziren Getxon, etxeko etxeko bilketako eta udal-lorezaintzako zerbitzuen bidez. Kopuru horretatik, 46.940 kilo-

gramo etxeko etxeko bilketa-zerbitzua gaz batu dira; gainontzekoa, 347.200 kilogramo, udal-lorezaintzako zerbitzuagaz. Kopuru hori garrantzitsua dela nabarmendu du Udalak, «ingurumenarentzat oso mesedegarria baita; izan ere, inausketa-hondarrak konpost gisa berrerabil daitezke, lurzoru, lorategi publiko eta pribatuak ongartzeko». Etxeko etxeko inausketa-zerbitzua alde aurretik eskatzea beharrezko da. ◀

## Auzoz auzo bere presentzia areagotu gura du PPK

Alderdiaren presentzia areagotu Aguran, Getxoko PPK «bulego mugikorra» martxan ipiniko du. «Hala, udaletxeko lantokiaz eta Areetako Zugatzarte kaleko egoitzaz gainera, bulego mugikorraren funtzioa beteko duen karpa ipiniko dugu, udalerriko auzo guztietatik mugitzeko», azaldu du Iñaki Gamero bozeramaile popularrak.

Ekimen horren helburua da alderdiaren presentzia areagotzea eta auzokideen iritzia entzutea, «baita euren ideia guztiak aurrez aurre batzea ere, gerora errealitate bihurtzeko». PPK iragarri duenez, zarama batzeko etxeko bilketa martxan ipini den guzuetan ipiniko dute karpa berria lehenengo egunetan. ◀

## Batzokiak jasandako eraso gaitzetsi dute

**Preso gaixoak herriratzeko** eskatzen dituzten pintaketak agertu ziren joan den astean Algortako Batzokian.

Pintaketaz beterik itzartu zen Algortako erdigunean dagoen Batzokia, joan den eguaztenean, hilaren 15ean. Horietan, euskal preso «amnistia osoa» aldarrikatzeaz gainera, EAJri «hiltzaile» deitu zioten. Ildo berean, jeltzaleak PP alderdiagaz erkatu dituzte. Facebook bidez kalera-tutako ohar baten bidez, EAJren Bizkaiko Buru Batzarrak «mota horretako jarrerak behin betiko uztea eta herritar guztien arteko bizikidetzara» eskatu du.

Bizkai Buru Batzarrak uste du mota horretako jarrerak «onartezinak eta erabat bateraezinak direla bide politiko eta demokratikoen erabateko erabileragaz». Horrez gainera, deitoratu du «Euskadiren garai berriei aurre egiteko ez diela inolako laguntzarik ematen». Era berean, nabarmendu du «denon arteko elkarbizitza sustatzeko,



Agertutako pintaketak. © BBB

beharrezkoa dela mota horretako jarrerak alde batera uztea behin betiko, benetako bakea lortzeko bidea zailtzen dutelako».

Horregatik denagatik, «eraso onartezin» horren egileei dei egin die ekintza horiek bertan behera uztera, «euskal gizarteak nahi duen normaltasunaren kontra doazelako». ◀

**prentsa · aldizkariak**

**ITXASGANE**

Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

**portu zaharra bar**

Portu Zaharra kalea 35  
48901 Algorta-Getxo  
Tf. 94 464 29 32  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com

**JUAN MARI**  
Harategia · Urdaitegia

**Baserriko haragia, produktu artisauna eta etxeko zerbitzua**

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA  
94 464 41 25





Egin, egiten gara

**BATIRTZE  
LERTXUNDI PEREA**  
Bilgune Feministako kidea

## Ez harresi, ez kaiola, ezta barrote ere

Otsailaren 11n, batzuek barrutik eta beste askok kanpotik ezagutu izan dugun munstrora martxa egin genuen. 300 emakume bildu ginen Valladolideko kartzelan, gure oihu, bertso, hitz eta presentziarekin emakume presoei elkartasuna adierazi eta kartzela sistema eta sakabaketa salatzeke. Ederra izan zen, historikoa. Gero, Nahikarik (han giltzaperatuta dagoen eskal preso politikoa) entzun izan gintuela eta honekin indarrez eta maitasunez bete zela jakinarazi ziguten.

Han, sistema punitiboa zailentzen jartzeko ordua dela esan genuen. Emakumeok badakigu, historian zehar indarrez erakutsi izan digutelako, gure lekuan ez bagaude, bortxatuak, irainduak, isolatuak, kartzelaratuak, erailak izango garela (batzuetan dena batera). Horren adierazle, presoak. Birjendarteratzearen faltsukeriarik ez mesedez. Kartzela mendeku hutsa da, are gehiago isolamendua eta dispersioa gehitzen zaizkionean. Mendekua ber hiru. Hau ez da gure bakea. Mendeku politiken esklabo izaten jarraitzen dugun bitartean ez gara bakean biziko. Hor nonbait, batzuen bakea izango da. Hauxe datorkit burura oraintxe: Hiru eraso sexualengatik kondenatua izan den gizon-gazte-txurikirolari-dirudunak indultua jasotzen du, berak ez duelako zigorra merezi, berak agintzen duela mundu honetan, espetxea ez dago pertsona horientzako egina. Ezta pentsatu ere. Agian hau bere bakea izango da, baina gurea ez. Espetxeak presoz beteta egotearen erantzukizuna sistema heteropatriarkalarena da. Edo errotik aldatzen dugu edo hau amaigabeko historia izango da. Nahiz eta errealitatea periferietan eta harresien atzean ezkutatuta nahi izango diguten sistemak kale egiten duela ez gogorazteko. Espetxeak apurtu. ◀

Getxo

# Aratuste beldurgarriak

**Inauteriak ospatzen lehenengoak** izango dira Itzubaltzeta/Romoko auzokideak, zapatuan hasiko dira eta ekitaldiak.

Itzubaltzeta/Romoko inauteriek emango diote hasiera Getxo udalerriko mozorro-jaiari. Izan ere, auzo horretako bizilagunak izango dira mozorroak jantziko dituzten lehenengoak; aurtengo gaia «beldurra» izango da. Zapatuan, hilaren 25ean, Santa

Eugenia plazan egingo dituzte goizeko jarduerak; 12:00etan umeentzako jolasak eta tailerrak egongo dira; ondoren, 13:00etan, umeentzako mozorro-lehiaketa egingo dute. Arrastian, 06:00ak aldera, txokolata banatuko dute Cervantes plazan; jarraian, ordu erdiren buruan, kalejira eta nagusien mozorro-lehiaketa egingo dituzte. Kalerik kale ibiliko dira, Zaratana batukadaren soinuan dantzan. Iluntzean, 20:00etan, umeentzako berbena egongo da Santa Eugenia plazan, Poxpo eta Lintxoren ekimenez. Azkenik, mozorroen eguna-

ri amaiera emateko, erromeria egongo da, 22:00etan, Urrats taldeagaz. Zuzeneko musikaz goizeko 02:00ak arte gozatu ahal izango da bertan. Hurrengo aste-akabuan, berriz, Boliviako inauteriak gogora ekarriko dituzte, 18:30etik aurrera, Bizkaia Zubitik hasiko den kalejiragaz eta ondoren egingo dituzten dantzen erakustaldiagaz.

Inauterien jaia eta horretan egingo den mozorro-lehiaketa hainbat eragileren eta auzoko tabernen elkarlanari esker antolatu direla jakinarazi gura izan dute arduradunek. ◀

**LASTER ERAIKIKO DIRA**  
PRÓXIMA CONSTRUCCIÓN



**Alangoeta**  
S.COOP.

**ALGORTA (GETXO)**  
ALANGO KALEAN



36

**etxebizitza kostu-prezioan**  
2, 3 eta 4 logelakoak, garajea eta trastelekua barne; kooperatiba-erregimenean.

**3** desde **320.600** €-tik aurrera  
D/L

**4** desde **357.500** €-tik aurrera  
D/L

**GESTIOA:**




**INFORMAZIOA ETA SALMENTA:**



**alangoeta.com**  
**94 460 95 53**  
Telletxe Kalea, 2, C (Algorta)

**FINANTZIAZIOA:**





## Getxo



Zentroen mantentze-lanak, obrak eta programak garatu dituzte, besteak beste.

# Ikastetxeak hobetu dituzte

Udalerriko eskoletan 575.000 euro inbertitu zituen joan den urtean Getxoko Udalaren Hezkuntza sailak.

Udalaren Hezkuntza sailak 575.000 euro bideratu zituen iaz udalerriko ikastetxeetako mantentze-lanetara, obretara, programetara eta diru-laguntzetara. Hezkuntza sailaren eginkizun nagusia da Haur Hezkuntzako 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoak kontserbatu, mantendu eta jagoteko beharrak egitea,

baita hezkuntza administrazioagaz lan-kidetzan jardutea ere. Udal-eskumene-ko zentroak ondorengo hauek dira: Andra Mari (Andra Mari eta Saratxaga), Larrañazubi, Romo, Juan Bautista Zabala (J.B. Zabala eta San Martín), Zubileta, San Ignacio, Geroa Ikastola, Gobelak Ikastola, Egunsentia Haurreskola eta HHI. Getxon 2016/2017 ikasturteko eskolen erroldan 7.640 ikasle daude. ◀

## Sinadura-bilketa, Santa Eugeniako zabuak mantentzeko

Santa Eugenia plazako txinboak mantentzea gura dute Itzubaltzeta/Romoko auzokide batzuek; hori dela eta, sinadurak batzen hasi dira. *Change.org* plataforman izenak batzeaz gainera, kalez kale babes bila ibiliko dira egunotan; gainera, mobilizazioaren bat edo beste egitea ere aurreikusi dute. Auzokide horien ezinegona sortu da auzoko plaza hori berregituratzeko Udalak egindako proiektutik, agintariek egindako proposamenak ez duela-ko aurreikusten umeentzako jolaslekuri ipintzea. Daborduko, 120 atxikipen baino gehiago lortu dituzte. ◀

## Pedro Morenés AEBetan enbaxadore izatea, zalantzan

AEBetan Espainiaren enbaxadore izateko Pedro Morenés areetarra proposatu du Gobernu espainiarrak. Hala ere, hainbat hedabidek zabaldu dutenez, oraindino ez du erantzunik jaso; «AEBak ez direlako Morenésengan fidatzen». Diplomatiako baten arabera, Morenésék Ministerioan lan egin izan zuen bitartean ustez Europako armagintza-enpresa batzuk «nabarmen lagundu» zituen. Hori dela eta, AEBek «ez du uste neutrala izango denik lan berrian». Halaber, Airbusen inguruko enpresetan lan egin izanak ere eragina izan dezakeela iragarri du. ◀

## Getxotik jolasak adituen arreta erakarri du nazioartean

Sentsibilizaziorako bideo-jolasa da Getxotik izeneko, eta *Platforma* aldizkari elektronikoa erakarri du oraintsu; aldizkari hori Lankidetzaren erreferentzia da Europa mailan. Jolasaren bitartez, munduan eta udalerrian giza eskubideak lantzen dituzten GGKEen lana ezagutzeko aukera dago. Udalerriko KZguneak ere jolasaren berri ematen du, eta Interneteko trebatze-

saioretan erabiliko du laster. Udalak antolatutako *Getxotik Mundura Mundutik Getxora* topaketen berritasunetako bat izan zen aurreko edizioan. Sortze-prozesuan Garapenerako Lan Taldeen ki-deek parte hartu zuten, udal-sail batzuek batera. HTML5 formatuan diseinatuta dago, zuzenean sar daiteke ordenagailutik, *tabletetik* edo telefono mugikorretik, ezer deskargatu barik. ◀



## Zabaldu euskararen atea

Getxoko establezimenduen argazkiak

### DIRU LAGUNTZAK

ERROTULUAK, TOLDOAK, BINILOAK, PERTSIANAK ETA IBILGAILU KOMERTZIALAK EUSKARAZ IPINTZEKO

#### Informazioa:

HIZKUNTZA AHOLKULARITZA  
GETXOKO SALTOKIEI

94 415 22 52

gehi@getxo.eus

GETXOKO UDALEKO  
EUSKARA ZERBITZUA

94 466 00 10/11

euskara.zerbitzua@getxo.eus  
www.getxo.eus

#### CIANOPLAN

94 464 90 87 - www.cianoplan.es  
(deskontu gehigarria)

#### KALKO

94 491 29 83 - www.kalko.net  
(deskontu gehigarria)

#### LA REPRO

94 491 13 95 - www.repro10.com  
(deskontu gehigarria)

#### ULI ARTE PERSIANAS Y TOLDOS

94 403 55 90 - www.persianasuliarte.com  
(deskontu gehigarria)

#### KISER

94 464 73 37 - www.kiser.com.es

#### RÓTULOS ARRILUCE

94 491 09 83 - www.arriluce.es



## Erudio

# Aratusteek plaza nagusiak beteko dituzte, aste-akabuan

**Barikutik domekara Inauteriak** ospatuko dituzte Altzagan, Astrabuduan eta Erandiogoikoan.



Mozorro-lehiaketak, Lantzeko Inauteriak, jan-edanak, eta abarrak hainbat lekutan eta egunetan.

**G**arizumaren aurreko festa heldu da berriro ere. Aurten, osagai bereziak izango ditu, barikuari dagokionez: lehenengo aldiz, ogi txigortu lehiaketa egingo dute Astrabuduan, Trabudu dantzari-taldeak antolatuta. Tostada jana ez da izango auzo horrek biziko duen berezitasun bakarra. Dantzariak Lantzeko Inauteriak ekarriko dituzte Mendiguren plazara, Miel Otxin gaiztoa jazarri eta epaitzeko. Gau horri, osterara, doinu ezberdin bi ipiniko dizkiote: Akerbeltzen erromeria Astrabuduan bertan; eta Takoni eta Indive disko-jartzaileena Kalezulo gaztetxean, betiko jolasen gaiaren gaineko mozorro-festan. Bestalde, zapatuan, ohiko programazioaz aparte, Goi-Alde dantza-taldea ere ausartuko da Lantzeko Inauteriak irudikatzen, Euskadi plazan. Domekan, Musika Bandak itxiko ditu Aratusteak. ◀

## Egitaraua

### Otsailak 24, barikua

**19:00** Tostada-lehiaketa, Mendiguren plazan, Trabuduk antolatuta.

**20:00** Kalejira Mendiguren plazatik.

**20:30** Miel Otxinen epaiketa eta Lantzeko Inauterien dantzak, Mendiguren plazan. Ondoren, txokolate- eta tostada-jana.

**22:00** Sari-banaketa eta Akerbeltz taldeagaz erromeria, Mendiguren plazan.

**23:00** Mozorro-festa, Kalezulo gaztetxean.

### Otsailak 25, zapatua

**11:00-14:00** eta **16:00-18:00** Umeentzako jarduerak, lehengo azokan eta Mendiguren zein Euskadi plazetan.

**13:00** eta **22:00** Kale-animazioa Irailaren 23 plaza, Obieta eta Jado artean; baita Murueta, Lubarri eta Trabudu artean ere.

**17:00** Umeen mozorro-lehiaketa lehengo azokan eta Mendiguren plazan.

**19:00** Goi-Alde dantza-taldearen Lantzeko Inauteriak, Euskadi plazan.

**19:30** Txokolate jana, udaletxeko arkupeetan eta Mendiguren plazan.

**19:30** Kuadrillen mozorro-lehiaketa, azoka zaharrean eta Mendiguren plazan.

**20:00** Txokolate-jana, Euskadi plazan.

**20:30** Mozorro-lehiaketa, Euskadi plazan.

### Otsailak 26, domeka

**13:00** Musika Bandaren kalejira Altzagatik.

## Enekuriko GEsEn, 34 kaleratze aukeran

**E**nekuriko Global Energy Services (GES) enpresako 34 langilek euren lanpostua gal dezakete, beharginen gehiengoak hala erabakiz gero. Izan ere, Estatu Espainiarrean GESek dituen 613 langileek bozkatzeko aukera izan zuten eguaztenean, hilaren 22an, enpresak egindako proposamena onartzeko ala atzera botatzeko. Zuzendaritzak proposatutako neurriak honakoak dira: 172 kaleratze (horien arteko 34 Erandion), eta zenbait estimulu beraien kontratuak bertan behera utzi gura dituzten langileentzat. CCOO sindikatuak iragarri du langileek erabakiko dutenagaz bat egingo duela. (Konsultaren emaitza iragarri barik zegoen HIRUKA inprentara bidean zela). ◀

## Erudio Zabaltzen aplikazioa, eskura

**W**ebgune berria estreinatzeagaz batera, Erandioko Udalak martxan ipini du Erudio Zabaltzen, sakelako telefonoetarako aplikazioa. BiscayTIK fundazioak garatu du, eta horren helburua da ahalbidetzea «Udalagaz harremana arinagoa eta errazagoa» izatea. Hala, «udaletik berehalako informazioa jasotzeko aukera» eskaintzen du baliabideak: «albistek, abisuak, gertakariak edo gardentasun-datuak eguneratzen diren bakoitzean». Hala ere, ez da bakarrik informazioa jasotzeko tresna bat: «zure herria zaintzen lagun dezakezu intzidentziak edo egin daitezkeen hobekuntzak Udalarari helaraziz», BiscayTIK fundazioak azaldu duenez. ◀

## Arrontegi zubiko sarbideak hobetzeko eskaera egin dute

**I**baizabalen alde bien arteko errepi-de loturak hobetzeko eskatu dio Aldundiari Bizkaiko Batzar Nagusiek. PPre proposamena onetsi zen EAJ, PSE-EE eta Talde Mistoaren aldeko botoakaz. Hala, «legealdi honetan helburu hori lortzera zuzendutako jarduketak egin ditzan» galdegin diote Foru Aldundiari. EH Bildu eta Ahal Dugu taldeak abstenitu egin ziren. Javier Ruiz bozeramaile popularrak azaldu zuenez, Arrontegiko zubia da Ibaizabalen alde bien arteko «errepideko lotura bakarra» eta, gainera, «antzinako» azpiegitura da; 1983an eraiki zenetik trafikoaren hazkunde «esponentziala» jasan du: «eguneko 150.000 ibilgailu-



Aldundiak Kukullarran egingo ditu lanak.

ren igarotzea» jasan dezake, forudatu araber. Egoera hori hobetzeko, PPK proposatu du itsasadarraren azpitik tunel bikoitza egitea, Itzurbaltza/Romo eta Santurtzi artean. EAJk eta PSE-EEK gogorazi dute bestelako neurriak hartuko dituztela. ◀



Potxingoak kaleetan

ANA TERESA ESCUDERO BIZKARGUENAGA  
Kazetaria

## Inauteriak: Kaosetik perfekzinora

**A**ratusteetan kaosa nagusitu behar da horren ostean perfekzinoa lortzeko». Holan azaltzen ebazan inauteriak duela urte batzuk izan neban lankide batek; holan bateratzen ebazan berak jai paganoa eta erlijiosoa. Norberarena ez dan nortasuna eta itxura hartuta neurrigabekeria. Hondoratu eta handik aurrera purga, garbiketa. Aitzakia ederra parranda eiteko! Hainbat auzo eta herritan kaoserako lasterketa hori hasi da dardorduko, gehienetan, aldiz, gaur hasiko da. Badakigu perfekzinoa ez dogula sekula be lortuko, kaosa be neurrikoa izan daiten espero dot. Bizi inauteriak eta batez be itzi besteek be gozatu dagiezan! ◀



Egunkariak  
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura izanez gero, etxera erango dizugu egunkaria!

GURE  
ETXEA  
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

txakoli  
mota  
gane  
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34  
(Akarlana parkea) Goleiri-Erudio  
94 467 00 07 - www.txakolimotagane.com





Krisalida

JOXE  
BELMONTE F. DE LARRINOA  
Idazlea

## Francoren herentzia amaigabea

Francoren hil da, esan zuen krokodilo malkoen artean gizon hark, zeinen izena ez baitut gogoratu nahi. Ba, bai, Franco hil zen, baina bere herentziak bizirik dirau, eta ez naiz alabak jaso zituen espolioaren ondoriozko ondasunez ari, diktadoreak sortu zuen kaka nahasteaz baizik.

Eraildakoek bide ertzetan jarraitzen dute (lehen abizena eman zidan aititak, besteak beste), egia, justizia eta erreparazioaren zain; eta desagertutako umeak, torturatuak, honez gero hil direnak, inoiz ere helduko ez den justiziaren zain.

ETak armak utzi ditu. Gehiago eskatzen zaio ordea. ETak barkamena eskatu behar du, eta ondo sentitutako *mea culpa* intonatu. Hedapenaren ondorioz Ezker Abertzaleak ere berdin, inguru batzuetan dena sartzen baita terrorismoaren zaku beltzean.

Ados, ETak armak utzi eta barkamena eskatu behar du, eta agian *mea culpa* intonatu ere bai, sortu duen min guztiagatik. Baina ez zukeen berdin-berdin egin behar izango Guardia Zibila, eta Estatuko indar armatu guztiak, Frankismoaren garaian egindakoagatik, baita ondorengo urte batzuetan egindakoagatik ere.

Ez diet guardia zibilen uniformetan dauden gizon eta emakume horiei duintasuna ukatuko, ezta oraingo polizia demokratiakoaren izaera ere, baina diktadorearen garaian, baita geroko urte batzuetan ere, *el Cuerpo* tortura basati, erailketa eta desagertu asko eta askoren egileak izan ziren. Terrorismo handiagorik?

Akaso legez kanpoko erakunde batek egin beharko lukeena, memoria izan eta barkamena eskatu, ez luke gobernuaren menpeko erakundeak egin beharko, eta are arrazoi handiagoz, gainera, gizartearen zerbitzariak izan direlako, eta badirelako gaur egun ere? ◀

## Leioa



Helduak ere edukiko dute mozorrotzeko aukera. MARITXU TEILAGORRI ELKARGUNEA

# Aurtengo aratusteak umeentzat dira

## Zapatu eta martitzenean

izango dira ospakizunak, Leioan; mozorro-lehiaketa bigarren egunean egingo dute, Kandelazubietan.

**N**agusiki, herriko txikiak izango dira aurtengo aratusteak, udal-iturriek adierazi dutenez. Ospakizunei hasiera emateko, gehienbat txikiei zuzendutako jarduerak egingo dituzte, Ikea Barri plazan, zapatu honetan, otsailaren 25ean. Arrastiko 05:00etatik aurrera, puzgariak, umeentzako ikuskizuna, mozorro-jaia eta animazioa egongo dira. Gauean, ostera, Trikizio erromeria-taldeak joko du. Martitzenari dagokionez, jarduera ugariz gozatu ahal izango dute etxeko txikiak, Kandelazubieta kiroldegian; Kiki, Koko eta Moko pailazoak egongo dira, besteak beste. Horrez gainera, bertan egingo dute Leioako 24. Mozorro-lehiaketa; egunean bertan izena eman beharko dute parte hartu gura duten den-denek. Sariak desfilearen ostean banatuko dituzte. ◀

## Egitaraua

### Otsailak 25, zapatua

#### Ume eta nagusientzako aratusteak

**17:00** Umeentzako eta gazteentzako jarduerak eta puzgariak, Ikea Barri plazan.

**19:00** Umeentzako ikuskizuna: *Orain bi zirko*, Ikea Barri plazan.

**21:00** Mozorro-jaia eta animazioa, Ikea Barri plazan.

**23:00** Dantzaldia, Trikizio taldeagaz, Ikea Barri plazako karpan.

**03:00** Jaiaren amaiera.

### Otsailak 28, martitzena

#### Umeentzako aratusteak

**11:00** Umeentzako parkea zabalduko dute, Kandelazubieta kiroldegian.

**12:30** Umeentzako ikuskizuna, Kiki, Koko eta Moko pailazoak, Kandelazubietan.

**14:00** Goizeko jardueren akabua.

**16:30** Arrastiko jardueren hasiera.

**17:00** Umeentzako animazioa, Kandelazubieta kiroldegian.

**18:00** Mozorro-lehiaketako partaideen desfilea, Kandelazubieta kiroldegian. Parte hartzeko egunean bertan izena ematea beharrezkoa da.

**19:00** Leioako 24. Mozorro-lehiaketaren sari-banaketa, Kandelazubietan.

**20:30** Jaiaren amaiera.

## Udalak izenpetutako hainbat kontratu iraungita ei daude

**U**dalak izenpetutako hamabi kontratu «daborduko iraungita» daukela salatu zuen Leioako EH Bilduk, urtarrileko osoko bilkuran. Horiek denak berritzatzeko orduan klausula sozialak (lan-baldintza duinak, ingurumen-irizpideak, berdintasun-politikak...) aplikatzea eskatu zuten koalizioko bozeramailea den Aritz Tellituk agintari leioaztarrei. Iban Rodríguez alkateordeak erantzun zionez, EAJK eta PSE-EEk osatzen duten udal-gobernua klausula sozialen «aldekoa» da; horiek aplikatzeko «konpromisoa» hartu zuen jeltzaleak. ◀

## Txakurrak lotu barik eroan daitezke orain, San Bartolomen

**S**an Bartolome auzoko Altzagaondo parkean ere txakurrak solte ibili ahal izango dira aurrerantzean, Leioako Udalaren Hirigintza Sailak erabaki duenez. Agintari leioaztarrek azaldu dutenez, berdegune hori «eguneko 24 orduetan erabili ahal izango dute» abereek eta euren ugazabek; izan ere, udalerrian horrelako gune gehiago daude, baina denak ez daude egun osoan erabilgarri txakur-rentzat. Berbarako, Aldapa, Artatza, Kandelazubieta, Mendibile, Ondiz eta Zarragabarrena parkeetan, 20:00etatik 09:00etara baino ezin dira egon. Ostera Aldapa, Artatza, Elexalde, Mendibile, Pinosolo eta Altzagaondon egun osoan ibil daitezke txakurrak; Lamiakon eta Sarrienan ere bai. ◀

## Vicrilako LAB, edozein eroslegaz negoziatzeko prest

**L**amiakoko Vicrila beirategia hondotik ateratzeko asmoz, «trantsizio-fase baterako akordioa» hitzartzeko prest dagoela adierazi du LAB sindikatuak: «edozein balizko eroslegaz negoziatzeko gertu gaude, bat bera ere baztertu barik», langile-erakunde abertzaleak adierazi duenez. «Posible baldin bada, Cambiumegaz ere» batzartuko direla gaineratu du LABek. Hala ere, argi utzi gura izan du «ezinezkoa» egin zitzaizkion inbertsio-funts horrek egindako azken eskaintza onartzea, «56 eta 106 langile finko artean kaleratu gura zituelako, eta 50 behin-behineko behargin ere bai». Gaur egun, 356 lagunek osatzen dute Lamiakoko Vicrila beirategiko lantaldea. ◀

*Kalitatezko irakaskuntza euskaraz*

**BETIKO IKASTOLA**

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA  
94 464 23 64/94 464 33 07  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea



## Sopela

# Inauteriak ospatzeko prest

**Kuadrillek barikuan** izango dute zoratzeko aukera; umeez, osteraz, domekara arte itxaron beharko dute.

Sopelako kuadrillak prest daude mozorrotzeko, zoratzeko, ospatzeko... Izan ere, bazkaria (14:30) eta mozorro-desfilea (17:00) antolatu dituzte; bariku honetan izango dira, otsailaren 24an, Ander Deuna ikastolan. Egitarauari jarraituz, arrastiko 07:00etatik aurrera, poteoa egingo dute kalez kale, Polekelele elektro-txarangagaz. Hala, bazkarirako txartelak Sopelako Laiak tabernan eta Larrabasterrako Ugari supermerkatuan eros daitezke, 10 euroan. Historia da mozorrotzeko aukeratu duten gaia. Umeez eta gaztetxoek, osteraz, do-



Zirika Zirkusen jolasakaz eta dantzakaz gozatzeko aukera egongo da, Urkon. © ZIRIKA ZIRKUS

mekara arte itxaron beharko dute aratusteez gozatzeko, otsailaren 26ra arte; 18:00etatik aurrera, Urko kiroldegiko ateak zabalik egongo dira. Mozorro-desfilea, aurpegia margotzeko eta mozorroren osagarriak egiteko tailerrak,

argazkiak ateratzeko aukera eta Zirika Zirkus taldearen ikuskizuna edukiko dituzte aukeran neska-mutiek. «Nahiz eta lehiaketan izenik ez eman, festan berdin-berdin parte har daiteke», kultur iturriek aipatu dutenez. ◀

## Film-proiektzioa eta berbaldia antolatu ditu Itzartu elkarteak

Hilero legez, genero-ikuspegiko filmen proiektzioa prestatu du otsailarako Itzartu emakumeen elkarteak. Orain dela aste bi, *Rastros de sándalo* pelikula ikusgai egon zen, Kurtzio kultur etxean; gaur, eguena, otsailaren 23a, *Joy* emango dute, leku berean, arrastiko 06:00etan. Emanaldia gaztelaniaz izango da; sarrera, doan. David O. Russell estatubatuarrek zuzendutako komedia dramatikoak negozio-dinastia bat ezartzea lortzen duen emakume baten istorioa kontatzen du: *Joy* Mangano ezkondu barik dago eta seme-alaba bi dauzka. Ingenious Designs LLC enpresaren presidente izatea lortuko du. Bestalde, *Mujeres vascas emprendedoras* izenburuko berbaldia eskainiko du Itziar Aloriak, Historian lizentziaduna da bera. Ekitaldia martxoaren 2an izango da, eguenean, 18:00etan, Itzarturen egoitzan (Landa doktorea kalea, 3. ataria). ◀

## Denontzako antzerkia egongo da barikuan eta zapatuan

Kulunka Teatro konpainiak *Edith Piaf. Taxidermia de un gorrión* antzezlan eskainiko du bariku honetan, otsailaren 24an, Kurtzio kultur etxean. Obrak gizakiaren jatorria eta horrek mitoak sortzeko daukan beharra aztertzen ditu. «Abeslari frantsesa izandako Edith Piaf-en bizitza eta ibilbide profesionalaren sentsazio eta sentimenduak erakutsiko dira, pertsonaia gutxi batzuen, antzeleen ahotsen eta zuzeneko musikaren bitartez», Kulunkako kideek azaldu dutenez. Ikus-entzuleak gizakien sinemenetan, erlijioan eta «berezko izadian» murgilduko dira.

Hurrengo egunean, XIX. mendeko ipuin klasiko bat oholtzaratuko du Glu

### Egitaraua

#### Otsailak 24, barikua

20:00 *Edith Piaf. Taxidermia de un gorrión* antzezlan, Kulunka taldeagaz, Kurtzio kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera: 8 euro.

#### Otsailak 25, zapatua

18:00 *Mari kizkur eta hiru hartzak* antzezlan, Glu Glu taldeagaz, Kurtzio kultur etxean. Euskaraz. Sarrera: 3 euro (umeez) / 5 euro (helduek).

Glu antzerki-taldeak; *Mari kizkur eta hiru hartzak* antzezlan, hain zuzen ere. Musika, dantza eta jolas uztartzen dituen familia osoarentzako ikuskizuna da. Sarrerak Kurtzio kultur etxean, udaletxean eta Larrabasterrako Sopenlarin udal-bulegoan eros daitezke. ◀

## Erabakitze eskubidearen aldeko zozketa egingo dute

Athleticen emakumezkoen taldeak Asinatutako kamiseta zozkatuko dute, Sopelako Laiak tabernan, martxoaren 2an, eguenean. Hitzordua 20:30ean ipini dute; daborduko bertan daude txartelak salgai, 1 euroan. Gure Esku Dago herri-ekimenak sortutako Uribe Kostako Ados taldeak antolatu du zozketa; modu horretan, erabakitze eskubidearen aldeko herri-galdeketa bultzatu gura dute. Barrikan, Gorrizen, Lemoizen, Plentzian, Sopelan eta Urdulizen egingo dute, momentuz behintzat, herri-galdeketa, maiatzaren 7an, domekagaz. Otsailaren 11n iragarri zuten, galdera ondokoa izango da: «Euskal Estatu burujabe bateko herritarra izan gura dozu?». ◀

## Patxi Larrionen lehenengo nobelaz berba egingo dute

Sopelako Irakurle Klubeko kideak Sberriro batuko dira gaur, eguena, otsailaren 23a; hitzordua arrastiko 07:00etan ipini dute, Kurtzio kultur etxean. Oraingo honetan, Patxi Larrion (Bergara, 1964) idazlearen lehenengo eleberraren gainean berba egingo dute; «jukutriak eta sekretuak, ambizioa eta traizioa, adiskidantza eta desira irabiatu ditu bizitasun harrigarri» bergararrak *Feriatzaileak* (Susa, 2016) nobelan, horrela dio horren sinopsiak. Hilean behin batzen dira sopeloztarrak irakurle-klubera, normalean hilaren azkenengo eguenean, 19:00etatik 20:30era, Kurtzio kultur etxean; ikasturte honetan, Lu-txo Egiak hartu du gidari-lekuko. ◀

BORDATUAK  
EUSKAL JANTZIAK

**AINGARA**

Aurrezki kutxa, +8-48930 ERROMO-Getxo  
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com

**OSABIDE** Hertz-Klinika  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

**ARTOLOZAGA**  
Tailerrak ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

**Sopelan**  
Gatzarrine z/g  
94 676 00 13  
94 676 38 14  
www.talleresartolozaga.com

**BOSCH**  
Service

**Sestaon**  
Miguel Servet, 6  
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

Car Service

hau herikuntzatik  
**ander deuna** batxilergora

Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28  
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunakastola.eus





Hitzen kliska

**JUAN LUIS MUGERTZA UNANUE**  
 Irakaslea eta idazlea

## Gero arte, Berango maitea

Azkenean, neuri ere alde egiteko ordua heldu zait. Baliteke oso urrutira joatea, edota inguruan gelditzea, zuengandik gertu, baina, mesedez, ez etorri agurtzera. Izan ere, bakar-bakarrik egin nahi dut bidaia, patxadaz. Gainera, ez dut negar malkorik nahi. Hori bai, abiatzear dagoen bidaia honetarako ez dut gauza handirik eramango. Soinean jantzitakoa baino ez dut eramango, gainontzekoa, hots, traba baino egiten ez duena bertan utziko dut zuentzat, familiakoentzat. Arren, ez haserretu banatzean, goitik begira izango nauzue eta.

Oraindik ez dakit lehenengo, bigarren... klasean joango naizen, ezta nire bidelagunak nolakoak izango diren ere. Ez dakit. Hori gerotxoago jakingo dut: laster batean. Bidaiaren bukarran itxoiaren egongo direnak ere, ez dakit nongoak izango diren. Itxura denez, horrelako bidaietan mundu osotik etorritakoak batuko gara. Aldamenean euskaldunik izango dut, ezta? Izan ere, nire ingelesa... «I'm Masti Gane and...». Hori dela eta, oso bidaia bitxia eta aberatsa izango da noraezean eramango nauena. Behin bakarrik burutu daitekeen horietakoa izango baita. Abenturazale handienek egiten dutenen antzekoa: bertan hasi, baina bueltarako pista handirik ematen ez duena. Ea zorterik dudak eta Kastro, Hugo Chavez, Periko Solabarriarekin... egoten naizen. Halarik ere, dena ez da politika izango. Behin honaino etorritik gero, saiatuko naiz atsedean pixka bat hartzen, eta sasoi batean bezala perretxikoetara joaten, eta txakolina, noiz edo noiz, edaten. Hori bai, badaezpada, joan-etorritako txartela erosiko dut, ze bertako giroa ez bazait gustatzen, berriro bueltatuko naiz zueñera. Beno, ni banoa, eta zuek... irribarre egin, hori hortzak erakusteko modua da eta. ◀

Mastiganeren gutuna.

## Berango

# Herritarren iritziak, auzoak hobetzeko

**Udalerrian hobekuntzak egiteko** auzokideen proposamenak batu gura ditu Berangoko Udalak.

Berangoko auzoek zer-zelako hobekuntzak behar dituzten jakiteko prozesua martxan ipini du Udalak. Horretarako, auzokideen iritziak jaso gura ditu, Auzoak Hobetuz parte-hartzera-ko ekimenaren bitartez. Kontuak hala, lehenengo ahaleginean, Angxane eta Basotxu auzoetan buzoi bana ipini zituzten, joan den otsailaren 21ean, eta hilaren 28ra arte egongo dira bertan. Horietan, auzo horietan egin beharreko hobekuntzak proposatu ahal izango dituzte inguruetan bizi diren gizon-emakumeek; «obra txikietarako aurrekontuaren bidez gauzatu ahal diren proposamenak», zehaztu dute arduradunek. Izan ere, honako proposamenak ez dituzte aintzat hartuko: zenbait kale, parke edo auzo guztiz be-



Auzoak Hobetuz programa jarri dute martxan, Angxane eta Basotxu auzoetan.

rrurbanizatzea; ekipamendu handiak eraiki edo handitzea; teknika zein ekonomia aldetik bideragarriak ez diren proposamenak; eta udal-eskumenekoak ez diren jarduerak. Jasotako iradokizun guztiak kuantifikatu, aztertu eta teknikaren aldetik balioetsi egingo ditu Udalak, horietatik zeintzuk

egingo dituen ala ez adosteko helburuagaz. Horren ostean, emaitzak udalwebgunean argitaratuko dituzte, eta kultur etxean herri-bilera egingo dute, jasotako proposamen eta iradokizun «guztiei» erantzuna emateko. ◀

harremanetarako: [partaidetza@berango.org](mailto:partaidetza@berango.org)  
[www.berango.net](http://www.berango.net)

## Kanpoan kirola egiteko diru-laguntzak martxan daude

Udalak martxan ipini du kirola sustatzeko laguntzen deialdia. Hala, Fadurako edo Sopelako kiroldegia erabiltzeko laguntza eskatu ahal izango da martxoaren 31ra arte. Laguntza horiek jaso ahal izateko, hainbat baldintza betetzea beharrezkoa da: Berangon erroldatuta egon beharko dute eskatzaileek, eta kiroldegirako abonua erabiltzeko izan. Fadurako erabiltzaileak

laguntzetatik kanpo geratuko dira, urtebetetik beherako iraupena badu abonua; aurtengoak, ostera, onartuko dituzte. Sopelan, berriz, kanpoan lotuko dira urtebete baino gutxiago badu abonamenduak; iazkoak, ordea, onartuko dituzte. Beharrezkoa da agiri hauek aurkeztea: abonamenduaren ordainagiria (edo fakturaren kopia), familia-liburua (behar bada) eta errolda-agiria. ◀

## Lemoiz

# Wifi sarea, dohainik, kultur etxean eta udaletxean

Lemoizko Udalak jakinarazi duenez, Wifi sarea ipini dute oraintsu udalerriko hainbat gunetan, «Internetara modu libre eta doakoan sartu ahal izateko». Hala, lekuetako bi Armintzako kultur etxean ipini dituzte, eraikinarren alde banatan; beste sarbidea Lemoizko udaletxean bertan jarri dute.

Internetara konektatu ahal izateko pasahitza ere ezagutarazi du Udalak: «le-moizwifi». Wifi sarearen izena, ostera, hau da: «le-moizko-udala».

Informazio hori guzti hori bando baten bidez jakinarazi die herritarrei Lemoizko Udalak, joan den otsailaren 10ean, barikuan. ◀

## Barrika

### Tostada-lehiaketaren bederatzigarren edizioa, astelehenean

Talo Egunaren ostean, udalerriko tostadarik gozoena zein izango den erabakitzeko hitzordua dute barrikoztarrek. Urtez urte, aratusteen bezperan, Tostada Lehiaketa antolatzen dute, eskualdean oso famatua dena. Aurtengoa bederatzigarren edizioa izango da, eta astelehenean egingo dute, hilaren 27an. Norgehiagoka gastronomiko horretan parte hartu gura dutenek alde aurretik izena eman beharko dute, hilaren 25eko 14:00ak baino lehenago. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, lehiakide bakoitzak ogizko, moldeko ogiz edo *bricochez* egindako dozena bat tostada aurkeztu beharko ditu lehiaketaren egunean, udaletxeko beheko solairuan, 18:00ak baino lehenago. Ondoren, sariak banatuko dituzte eta, gero, ekitaldira hurreratuko direnen artean tostaden dastaketa egingo dute; hala ere, tostadak irabazleak ezin izango dira ahortu, begiz «jendeak disfruta ditzan». ◀



## Gorliz

# «Bidaia asko egiteko aukera izan dugu»

**Juan Manuel Goikoetxea** *Motores* da Gorlizko Lirain abesbatzako presidentea. Akorduan duenez, orain dela 25 urte sortu zuen taldea; gaur egun 34 kide dira.

IKER RINCON MORENO ▶

Gorlizko sarreran dagoen zuhaitzari gorazarre egitearren, ehun urte baino gehiagoko artearen omenez, Lirain izena ipini zion herriko abesbatzari Juan Manuel Goikoetxeak. «Zuhaitz liraina da, elegantea», dio *Motores* goitizenez ezagutzen duten gorliztarrak. Arte hori abesbatzaren armarrarian agertzen da, taldea irudikatzen.

## Zelan sortu zen Lirain abesbatza?

Lemoizko jatetxe batean hasi zen dena, 1991ko abenduan. Lagun-talde bat joan ginen bertara, eta abesten hasi ginen afaldu ostean, ohi den legez. Ondoa zegoen beste kuadrilla bat batu zitzaigun, eta ahotsen batzea oso ondo entzun zen. Hala, jatetxetik irtetea abesbatza bat sortzeko ideia helarazi nien lagunei. Handik gutxira, Kultur Etxeak Santa Agedako lehiaketa bat antolatu zuen eta horretan kantatzea proposatu nion hainbat gizon-emakumeri. Hala ere, Aratz dantza-taldekoak aurkeztuko zirela jakin nuen, eta atzera egin nuen; eurek irabazi zuten saria, Txiki-teros taldeagaz batera. Egun batzuk beranduago, berriz, jendeak abesbatza bat antolatzeko nahia bazuela ikusi nuen, eta lehenengo bilera antolatu genuen 1992ko otsailaren 23an.

## Zein izan zen lehenengo kontzertua?

Apurka-apurka batzen eta entseatzeko hasi ginen... Urte hartako Aste Santuan estreinatu ginen, zapatuko mezan. Garai haietan ez genuen inolako uniformerik eta, behintzat, jakak janzteko deia egin nuen; hala, batzuk jaka urdinak agertu ginen, beste batzuk soldaduskakoak eta azkenengoak ezkontzakoak... Jendeari asko gustatu zitzaion kontzertua; eta, mezatik irteterakoan, garaiko alkateari uniforme egoki batzuk behar genituela esan nion. Hala, Udalak diru-laguntza bat eman zigun Bilboko denda batean «benetako» traje batzuk erosteko. Ondoren, urte bereko Santiago jaietan ere abestu genuen, jende askoren aurrean. Gaur egun BBK dagoen parean ipini zuten agertokia, kale nagusian,



Guztira, 34 gizon-emakumek osatzen dute Lirain abesbatza.

eta lau abesti kantatu genituen. Hori-ze izan zen jendaurrean eman genuen lehenengo kontzertua.

## Orduz geroztik, leku askotara bidaia-tu duzue, ezta?

Europa osotik ibili gara, kontzertuz kontzertu. Milanen hasi ginen; bertan, emanaldi bitan parte hartu genuen, Corbettan eta Magentan. Austriako Viena eta Salzburgon ere egon gara, baita Pragan (Txekiar Errepublika) ere. Beste urte batean Parisera joan ginen. Ostera, irteerarik politena Italiara joan ginenekoa izan zen. Vatikanon abestu genuen, San Pedro basilikako aldare nagusian; egundokoa izan zen! Bestalde, EAEko eta iberiar penintsulako leku askotan egon gara. Aurten, Portugalera joango gara, ekainaren 16tik 23ra. Han, Foz Jauregian abestuko dugu, besteak beste. Hortaz, esan dezakegu abesbatza ibiltaria garela oso; horrela segituko dugu, ahal dugun bitartean.

## Beste abesbatza batzuek alderatuta, baduzue bereizgarririk?

Ez gara ezberdinak; abesbatza arrunt bat gara, baina zorrea alde izan dugu: gugaz jardun duten hiru konpositorek habanera bana egin dizkigute. Horietako batek, abesbatzako zuzendaria izandako Julen Ezkurrak, *Gorliz* izeneko poema konposatu zuen. Horretatik

hiru abesti sortu ditugu; oso politikak, eta, gainera, euskaraz abesten ditugu!

## Urteurrena ospatzeko aldizkari bat kaleratuko duzue laster...

Abesbatzak 25 urte betetzen dituela ezagutzera eman gura dugu, gure historia zein den jakinarazi. Aldizkaria doan banatuko dugu, kultur etxean edo liburutegiren batean, oraindino ez dugu zehaztu noiz banatuko dugun ere ez. Bertan, abesbatzaren historia laburbildu dugu, eta hainbat elkarrizketa ere agertzen dira, besteak beste.

## Zer egingo duzue mende-laurdena ospatzeko? Ekitaldi bereziren bat...

Santa Ageda bezperan abestu ostean, apirilaren 30ean Gasteizera joango gara kantatzen. Gero, esan legez, ekainean Portugalera bidaia egingo dugu; uztailearen 1ean Gorliz ibiliko gara kalez kale abesten, Bakioko abesbatzagaz eta albokari-talde batez. Horren ostean, uztailearen 8an, Gorlizko elizan emango dugu kontzertua, Bilboko koralagaz batera. Emanaldi berezia izango da hori: abesbatzan 25 urteotan egon diren 10 lagunei zilarrezko intsigniak banatuko dizkiegulako, kontzertu bien artean. Azkenik, urtero legez, habaneren jaialdian parte hartuko dugu; eta uztailearen 25ean Santiagoren ome-nezko mezan ere kantatuko dugu. ◀

## Plentzia



Mapa erradioelektrikoa egin dute oraintsu.

## Erradiazioa murrizteko neurriak hartuko ditu Udalak

Udalerriko mapa erradioelektrikoa egin ostean, emaitzen arabera, esposizio-maila Espainiar Estatuko araudiak ezarritako mugen barruan dago. Halere, Europako Batzordeak gomendatutako maila gainditu egiten da leku askotan, bereziki erdigunean. Azaldu dutenez, etxeren batean gomendatutakoa baino 30 aldiz handiagoa da erradiazioa, eta 6 aldiz handiagoa hainbat eremu publikotan. Europako Batzordearen ebazpena onartu zuen iaz Udalak, hartara, erradiazio horien inpaktuari aurre egiteko neurriak hartzeko konpromisoa hartu du. ◀

## Olio batzeko edukiontzi berri bi ipini ditu Udalak

Etxeko olio batzeko edukiontzi ebana ipini ditu Udalak Saratxaga eta Isuskitza auzoetan. Hala, horiek sarea osatu dute udalerriko beste gune batzuetan (Txipio Bidea eta Labasture) daudenak. Hala, eguneko edozein ordutan utz daiteke olio aipatutako edukiontziak, betiere plastikozko ontzi batean, ezin da olio isuri zuzenean edukiontzian. Jasotako olioagaz, xaboiak egin daitezke, besteak beste. ◀

## Apiriletik aurrera metroz joan ahalko da Plentziara, berriro

Plentziarainoko bidea zabalduko du Metro Bilbaok apirilean, hainbat hedabide azken egunotan jakinarazi dutenez. Hala, guztira, 24 hilabeteko lanak beteko dituzte, aurreikusitakoak baino 6 hilabete gehiago. Lanok 700 metroan egiten dabilta, eta horietatik 543 metroan egin dituzte daborduko. Gainera, Urdulizko metro-geltoki berriko igogailua eta *Fosferitoa* instalatu dituzte. Bizkaiko Garraio Partzuergoak jakinarazi du proiektu horren kostua 20,1 milioi eurokoa izan dela, aurreikusitakoa baino ia milioi bat euro gutxiago. Diru-kopuru hori Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu dute, erdibana. ◀



## Uribe Kosta

# Mozorrotzeko ordua heldu da!

**Bariku honetatik**

**aurrera**, eskualdeko herri gehienetan aratusteez gozatzeko aukera egongo da, martxoaren 4ra arte.

**U**ribe Kosta, jantzi mozorroal Aukera zabala dago eta eskualdeko herrietan. Aztiak eta sorginak, Berangon; eta gaia librea da gainontzeko herri denean. Ohiturei eta tradizioei gorazarre edo barre egiteko, askotariko jantziak aterako dira kalera adin guztietako uribekostarrak. Lemoiztarrak izango dira lehenak jai giroan murgiltzen: barikuan, Urizarreko frontoian askotariko mozorroak ikusi ahal izango dira, 18:00etatik aurrera. Hurrengo zapatuan, martxoaren 4an, berriz, Armintzako txanda izango da, mozorro-lehiaketa eta guzti. Aurtengo aratusteez Lemoizko Udalak antolatu ditu, udalerriko ostalariak batera. Azaldu dutenez, mozorro-lehiaketako parte-hartzaileek «taberna guztietatik» pasa beharko dute ostalariak mozorroak puntuatzeko. Gorlizko Aratz Dantza taldekoek ere barikuan ipini dute hitzordua; euskal aratusteen



Askotariko mozorroak ikusi ahal dira egunotan.

nondik norakoak ezagutaraziko dituzte Ibarreta plazan, 19:00etatik aurrera. Zapatuan, oster, umeentzako tailerrak egingo dituzte, txokolatea banatuko dute eta disko-festa egongo da, neska-mutil guztien gozamenerako. Egun horretan bertan ere, Berangoko gazteak aztiz edo sorginez mozorrotuko dira. Arrastian, 05:30ak aldera, kalejira egingo dute udalerriko kaleetan, Berangoeta kultur etxetik frontoira joa-

teko. Ondoren, txokolatea banatuko dute eta disko-festaz gozatzeko aukera izango dute, 23:30era arte. Azkenik, hilaren 27tik martxoaren 3ra bitartean, Urduliz bere egingo dute aratusteez. Astelehenean, mozorroak egiteko tailerra egingo dute kultur etxean; martitzenean, txotxongiloak egiteko, eta martxoaren 3an, barikuan, Gari, Montxo eta Joselontxoren *Mozorrotzen* ikuskizuna egongo da kultur etxean. ◀

**Herriz herri****Berango****Otsailak 25, zapatua**

17:30 Kalejira, Berangoeta kultur etxetik.

18:00 Txokolate-jana.

18:30-23:30 Disko-festa, frontoian.

**Lemoiz****Otsailak 24, barikua**

18:00 Puzgarriak.

19:00 Tostada-txapelketa.

19:30 Txokolate-jana, Urizarreko frontoian.

**Martxoak 4, zapatua**

17:30 Disko-festa eta mozorro-lehiaketa, Armintzako frontoian.

**Gorliz****Otsailak 24, barikua**

19:00 Euskal inauteriak Aratz Dantza taldeagaz, Ibarreta plazan.

**Otsailak 25, zapatua**

17:30 Tailerrak eta txokolate-jana.

19:30 Disko-festa.

**Urduliz****Otsailak 27, astelehena**

17:30 Mozorro-tailerra, kultur etxean.

**Otsailak 28, martitzena**

17:30 Esku osoko txotxongiloak, kultur etxean.

**Martxoak 3, barikua**19:00 Gari, Montxo eta Joselontxoren *Mozorrotzen* ikuskizuna, kultur etxean.

## Oporretan Txangora joango dira eskualdeko neska-mutilak

**M**ankomunitateak Oporretan Txangora ekimena antolatu du, berriro. Hala, eskualdeko txikienek Aste Santuko oporrez gozatzeko aukera izango dute, apirilaren 19tik 21era. Horretan izena emateko epea otsailaren 20tik 24ra izango da. Neska-mutilek jardueraz beteriko hiru egunez gozatzeko aukera izango dute: Bizkaia Abentura Park-era, Ekogunea Kutxa Funda-

ziora eta Euskal Buztingintza museora joango dira. Interesdunek izena emateko modu bi dituzte: Mankomunitateko bulegora bertaratuz (Gatzarriñe, 4. Sopela) edo posta elektronikora mezu bat bidaliz. Guztira, 30 euro ordaindu beharko dituzte, ume bakoitzeko; diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaileek eta familia ugariak, 20 euro. ◀

harremanetarako: euskera4@uribekosta.org

## Matilde Lineo lemoiztarra, Mankomunitateko kide berria

**U**ribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak zinegotzi-batzordekidearen lana egingo duen beste pertsona bat hautatu du: EAJko Matilde Lineo. Hala, Lemoizko Udala ordezkatzeko duen zinegotzi horrek 58.415,64 euroko soldata izango du urtean, 14 ordain-saritan; kargua lanaldi osoan hartuko duelako. Mankomunitateak bere gain hartu du kuota horien ordainketa. ◀



## Etorkizuneko Bilbo metropolitarra, ikusgai

**Lurralde Biziak erakusketa** ikus daiteke egunotan eskualdean, inguruotako LZP berrikusteko asmoz.

**H**amar urte igaro dira Bilbo Metropolitarraren Lurralde Zati Plana (LZP) onetsi zenetik. Denbora luze horretan aldaketa nabariak egon dira inguruotan; hori dela eta, plan hori berritzeko beharra dago, aldaketa horiei erantzuteko eta eratorritako egoera berrira egokitzeko egoera sozioekonomiko berritik eta hainbat plan zein egitasmo gauzatzetik. Bizkaiko Foru Aldundiak Bilbo Metropolitarraren LZPre berrikuspene-prozesua sustatu du, eta herritarrek parte hartu ahal izango dute horretan. Guztira, Planak Bilbo Metropolitarraren funtzio-arloa osatzen duten 35 herriei eragiten die: Abanto, Alonsotegi, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Barakaldo, Barrika, Basauri, Berango, Bilbo, Derio, Erandio, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Gorliz, Larra-

betzu, Leioa, Lemoiz, Lezama, Loiu, Muskiz, Ortuella, Plentzia, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Sopela, Trapagaran, Ugao-Miraballes, Urduliz, Zamudio, Zaratamo, Zeberio eta Zierbena. Datozen egunotan, gainera, berrikuspenearen inguruko erakusketa ibiltaria egingo dute udalerririk horietan. Horren helburua da plana ezagutaraztea eta udalerririk bakoitzeko herritarrei informazioa ematea, baita parte hartzeko eskura izango dituzten kanalen nondik norakoak azaltzea ere. Barrikan, Sopelan eta Urdulizen ikusgai dago daborduko, hilaren 26ra arte, udal liburutegian, udal igerilekuetako hall-ean eta kultur etxean, hurrenez hurren. Ondoren, Plentzian ikusi ahal izango da Plana, otsailaren 27tik martxoaren 3ra bitartean, Goñi Portalen, hain zuzen ere. ◀





Aurten, berritasun moduan, ez da beharrezkoa izango taldekideetako bat behintzat Getxon erroldatuta egotea.

## Oinarriak

### A maila

12-15 urte bitartekoena (2002-2005 urteen artean jaiotakoak)

*Bost ahizpa; Urtebete itsasargian; Hildakoen eremuan; Ilargiaren alaba; Gerra txikia; Beti Iparralderantz; Inesaren balada; Azken balada; Kutsidazu bidea, Ixabel; Franco hil zuten egunak; edo Zebra efektua.*

### B maila

16-18 urte bitartekoena (1999-2001 urteen artean jaiotakoak)

*Fikzioaren izterrak; Aulki jokoa; Baleak ikusi ditut; Nora ez dakizun hori; Ipuin batean bezala; 12etan bermuta; Nork hil du Andoni Egaña?; Simeone de Beauvoir. Emakume libre bat XX. mendean; edo Obabakoak.*

### Informazio gehiago

Parte hartu ahal izateko 1-3 laguneko taldea osatzea beharrezkoa da.

Lanak apirilaren 14a baino lehenago aurkeztea beharrezkoa da.

Iraupena: 2 minutu, gehienez.

# Book Trailer Lehiaketa

**Getxoko Kalabazan kultur** ekimenak Book Trailer Lehiaketa martxan ipini du, hirugarrenez; irakurzaletasuna bultzatzeko. Lanak apirilaren 14ra arte bidal daitezke.

**B**ueltan da Getxoko Book Trailer Lehiaketa. Gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea da horren helburua; berenberegiz, 12 eta 18 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta dago. Parte hartu gura dutenek aukeran eskaintzen diren liburuetakoko bat irakurri beharko dute eta horren trailerra egin. Lanak apirilaren 14a baino lehenago aurkeztea beharrezkoa da. Antolatzaileek

azaldu dutenez, filmetako trailerren antzeko teknikak erabiltzean datza Book Trailer lehiaketa, liburuak eza-gutzera emateko eta irakurleak erakartzeko. Bideoek minutu bateko iraupena izan ohi dute, eta Interneten bidez hedatzen dira. Gehienez hiru pertsonako taldeek parte har dezakete, eta aurten ez da baldintza izango kideetako bat behintzat Getxon erroldatuta egotea; hala, Euskal Herriko edozein

gaztek parte hartu ahal izango du. Lanak Kalabazan kultur ekimenaren helbide elektronikora bidali beharko dituzte parte-hartzaileek, apirilaren 14a baino lehen, bideoak Youtuben eskegi ostean, horren lotura e-mailez bidaliz. Maiatzaren 7an egingo dute sari-banaketa; euskara eta euskal kulturaren alorreko hiru kidek osatutako epaimahaiak aukeratuko ditu irabazleak.

Aurten maila bi egongo dira: A maila (16-18 urte artekoena) eta B maila (12-15 urte artekoena). Maila bakoitzeko irabazleek *tablet* bana irabaziko dute; bigarrenak, ordea, eskola materiala erosteko 50 euro. Horrez gainera,

publikoaren saria ere emango dute: sari-banaketara hurreratuko direnek euren bideo gustukoena bozkatuko dute; boto gehien lortuko dituen taldearen kide bakoitzak abentura-kamera bana jasoko luke. Kalabazan kultur ekimeneko antolatzaileek jakinarazi dutenez, *booktrailer*ak egiten ikasteko ordu biko ikastaroak egingo dituzte, Getxoko Gauegun gaztelekuan, doan; datak oraindino ez dituzte zehaztu. Horietan parte hartu gura duten neska-mutilek Kalabazan helbide elektronikora idatzi beharko dute. ◀

info+: [www.kalabazan.com](http://www.kalabazan.com)  
sardadilakalabazan@gmail.com

## Mendibile apaintzeko mural-lehiaketa, abian

**L**eioako Mendibile Jauregia apaintzeko mural-lehiaketa antolatu dute, hirugarrenez. EHUko Arte Ederren fakultateko ikasleei edo bertan ikasketak amaitu dituztenei begirako lehiaketa da. Horren helburua nagusia da eraikinaren beheko partean dauden hormetan txakolin munduagaz zerikusia duen horma-irudi adierazgarria egitea, baita aurretik beste artista batzuek egindako lanak elkarbizitzera. Lanak aurkezteko epea hilaren 24ra arte egongo da zabalik. Ondoren, aurkeztutako proposamenen artean, epaimahaiak aukeratuko du zeintzuk onartzen diren lehiaketa-



Arte Ederren ikasleei begirako lehiaketa da.

rako. Ostean, lan horiekaz erakusketa bat prestatuko dute Jauregiaren erakusketa-aretoan, martxoan hasi eta apirilera bitartean. ◀

info+: [www.leioa.net](http://www.leioa.net)

## Saxofoi-ikastaroa egingo dute Erandioko Udal Musika Eskolakoek, hainbat aditugaz

**H**amaikasax saxofoi-jole elkarteak eta Erandioko Udal Musika Eskolak saxofoi-ikastaroa antolatu dute, gradu profesionalean ikasten dauden edo maila horretara sartzeko frogak egingo dituzten ikasleei zuzendutakoak. Azaldu dutenez, ikasle mota bi onartuko dituzte: aktiboa (65 euro) eta entzulea (15 euro). Daborduko aktibo izateko izen-ematearen epea amaitu da, baina, oraindino, entzule moduan parte hartzeko aukera dago, izena emateko epea martxoaren 2ra arte luzatu baitute. Ikastaroa martxoaren 2tik 5era izango da, eta Nacho Solanak, Alberto Mielgok eta Ángel Martínezek emango dute. ◀

## Dokumentalen aldeko apustua egin du aurten Zinegoak jaialdiak, bere ediziorik indartsuenean

**E**randion, Getxon eta Leioan ere gozatu ahal izango da aurtengo Zinegoak jaialdiak. LGTBI zinemaren jaialdia joan den astelehenean abiatu zen Bilbon, eta martxoaren 5era arte iraungo du. Aurtengo edizioan, dokumentalen aldeko aldarria egin du nabarmen. Lehenengo astean, protagonismoa dokumentalarentzat eta zinema esperimentalarentzat izango da, eta areto nagusiak Bilborock eta Bilbao Arte Fundazioko Art House Zinemak izango dira. Jaialdiak Euskal Herriko udalerrietan duen hedapena gero eta zabalgaita da; aurten 30 herri baino gehiagotan antolatuko dira saioak. ◀



# hirukagenda

Uribe Kostako astekaria

2017ko otsailaren 23tik martxoaren 1era arte



hiruka.eus



Tximinia-gizonek mundu gris bat sortu dute, kolorea kendu diote. Lurra salbatzen ahaleginduko dira herritarrak. © BOROBIL-TEATRO

LEIOA

## Gu antzezlan familiarra, Borobil konpainiagaz

Borobil taldeak *Gu* antzezlan eskainiko du, Kultur Leioan, domeka honetan, otsailaren 26an. Obra hori 4 urtetik gorako ikusleei begirakoa da; eta euskaraz emango dute. Sarrerak 2,5 eta 5 euroan daude salgai. Emanaldia 18:00etan izango da. Anartz Zuazuak zuzentzen duen lanak gure planeta jaretako aldarrikapena plazaratu gura du; eta hori helburu agerlekura igoko

dira Borobil antzerki-taldea osatzen duten hurrengo aktoreak: Asier Sota, Imanol Espinazo, Julen Vega eta Han-na Bery. «Itsas-hondora, oihanera... eroaten gaituzten keinuak, mugimenduak, umorea eta plastikotasuna uz-tartzen ditu antzezlanak; horrez gain, irudi ederrak eta mezu sakona dauzka», konpainiakoek azaldu dute-nez. Txikientzat zein handientzat egin-

da dago *Gu*; izan ere, Borobil taldeko arduradunek nabarmendu dutenez, «umorea erabiliz, familia osoarentzako antzerkia egitea» da euren helburua. Hala, aktoreek garrantzi handia dute: «atrezko-elementu gutxi erabiltz, ikusleek eszenario ezberdinetara bidaiatzea lor dezakete», aipatu dute-nez. Zineman eta telebistan esperientzia handia dute Borobileko kideek. ◀

URDULIZ

**Teresa eta Galtzagorri** filma ikusgai egongo da kultur etxean, zapatuan

*Teresa eta Galtzagorri, adiskidetasunaren magia* izenburuko pelikula ikus-terko aukera egongo da Urdulizko kultur etxean, zapatu honetan, otsailaren 25ean. Agurtzane Intxaurreagak (Orozko, 1966) idatzitako ipuin-bilduman oinarritua dago istorioa. Hitzordua arrastiko 06:00etan ipini dute; sarrerak 3,50 euroan daude salgai. ◀



BERANGO

**Txan fantasma** txotxongilo-saioa, Berango Antzokian

Txotxongilo-ikusizun hori Maria-sun Landaren (Orereta, 1049) *Txan fantasma. Neskatila baten eta fantasma txiki baten arteko adiskidetasuna* liburuan oinarritzen da. Berango Antzokian ikusteko aukera egongo da, domeka honetan, otsailaren 26an. Emanaldia 18:00etan izango da, euskaraz. Sarrerak 3 euroan egongo dira salmentan. ◀

ANTZERKIA

OTSAILAK 24, BARIKUA

**Taxidermia de un gorrión**

20:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela  
Kulunka Teatro antzerki-taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 8 euro.

OTSAILAK 25, ZAPATUA

**Where do you live? ipuina umetxoentzat**

10:30/11:30 | Areetako Elkartegia | Getxo  
Kids&Us eskolak antolatuta. 10 eta 36 hilabete arteko umetzentzat. Ingelesez. Sarrera, doan (gonbidapenak hartzea beharrezkoa da, Algotaitako edo Getxoko Kids&Us eskoletan).

MUSIKA

OTSAILAK 23, EGUENA

**Tom Boyle (pop-rock)**

20:00 | El Comercio taberna (Areeta) | Getxo  
Getxon Zuzenean zikloa. Sarrera, doan.

OTSAILAK 24, BARIKUA

**Erandioko Musika Banda**

19:00 | Kalez kale, Astrabuduan | Erandio  
Aratusteak ospatzeko ekitaldien barruan. Otsailaren 26an, domekan, Altzagan egongo dira. 13:00etan.

**Akerbeltz erromeria-taldea**

22:00 | Mendiguren plaza | Erandio  
Aratusteak ospatzeko ekitaldien barruan.



PLENTZIA

## Kantagunek berriro alaituko ditu kaleak

Plentziako Kantagune taldea kalez kale abesten ibiliko da bariku hone-tan, otsailaren 24an. Hala, arrastiko 07:00etan entsegua egingo du, Kristo baselizan; ordu bi beranduago kalejira abiatuko dira, Eliz plazatik. ◀

SOPELA

## Andre ekintzaileen gaineko berbaldia

Historian lizentziatua den Itziar Aloriak berbaldia eskainiko du, Itzartu emakumeen elkarteko egoitzan (Landa dokto-rea, 3), martxoaren 2an, eguenean. *Mujeres vascas emprendedoras* izenburuko satea arrastiko 06:00etan hasiko da. ◀

ERANDIO

## Bitxigintza-tailerra egongo da, Altzagan

Zapatutan Olgetan ekimenaren barruan, bitxigintza-tailerra egingo dute, euskaraz, Altzagako ludotekan, martxoaren 4an. Familia osoari begirako tailerra 17:00etatik 18:30era izango da. ◀

izen-ematea: [www.erandiokoeuskarazerbitzua.eus](http://www.erandiokoeuskarazerbitzua.eus)

**Mari Kizkur eta hiru hartzak**  
18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela  
Glu Glu antzerki-taldeagaz. Euskaraz. Sarrera: 3 euro (umeek) / 5 euro (helduek).

### BERBALDIAK

OTSAILAK 23, EGUENA  
**Imperies (Babes bila) liburuaren aurkezpena**  
19:30 | Algotako kultur etxea | Getxo  
Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoa (UKITX). Lourdes Oñederra idazleagaz. Euskaraz. Sarrera, doan.

### DEIALDIAK

OTSAILAK 23, EGUENA  
**Sopelako Jai Batzordearen urteko lehenengo bilera**  
19:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela  
Gura duten denek parte har dezakete.

### ERAKUSKETAK

OTSAILAREN 23TIK MARTXOAREN 8RA  
**Mi ojo izquierdo**  
Algotako kultur etxea | Getxo  
Amada Riosen argazkiak. Astelehenetik zapatuta. Sarrera, doan.

OTSAILAREN 24RA ARTE

**Teresa Beitiaren pinturak**  
Goñi Portal kultur etxea | Plentzia  
Astelehenetik barikura. Sarrera, doakoa.

OTSAILAREN 26RA ARTE

**Euskal Akua-relarien Elkarte**  
Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo  
Eguaztenetik domekara. Sarrera, doakoa.

OTSAILAREN 28RA ARTE

**URBANue II**  
Kultur Leioako erakuseta-gela | Leioa  
Udane Juaristiren margolanak. Sarrera, doakoa.

**Acortando distancias, acercando realidades**

Algotako kultur etxea | Getxo  
Zabaliketa GKEaren argazkiak. Astelehenetik zapatuta. Sartzea, doan.

### IKASTAROAK

OTSAILAK 23, EGUENA  
**Atzamarretako txotxongi**  
17:30-19:30 | Kultur etxea | Gorliz  
Tailerra 5 eta 12 urte arteko umeentzat da. Doan.

OTSAILAK 25, ZAPATUA

## Braztset Molto Vivace taldearen kalejira

13:00 | Kalez kale, Altzagan | Erandio  
Aratusteak ospatzeko ekitaldien barruan. Egun berean, 22:00etan. Astrabuduan egongo dira.

## Les Maniacs musika-taldearen kalejira

13:00 | Kalez kale, Astrabuduan | Erandio  
Aratusteak ospatzeko ekitaldien barruan. Egun berean, 22:00etan, Altzagan egongo dira.

## Blas Fernández (jazz)

19:30 | Areetako musika-eskola | Getxo  
Neguko Bidaia zikoa. Sarrera: 5 euro.  
Kontzertua amaitzean, berbaldia egongo da entzuleen eta musikariaren artean.

## Trikizio erromeria-taldea

23:00 | Ikeea Barri plaza | Leioa  
Aratusteak ospatzeko ekitaldien barruan.

OTSAILAK 26, DOMEKA

## Dantzaldia Pergola taldeagaz

17:30 | Altzagako azoka zaharra | Erandio  
Sarrera, doan.

## Inprobisazio-saioa

19:30 | El Comercio taberna (Areet) | Getxo  
Areetako musika-eskolako jazz-taldeagaz. Doan.

### ZINEMA

OTSAILAK 23, EGUENA

## Joy genero-ikuspegiko filma

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela  
Itzartu emakumeen elkarreak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doakoa.

OTSAILAK 24, BARIKUA

## Yo, Daniel Blake

21:00 | Areetako musika-eskola | Getxo  
Zine Kluba zikloa. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,90 euro.

OTSAILAK 25, ZAPATUA

## Figuras ocultas

20:15 | Kultur etxea | Urduliz  
Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

OTSAILAK 28, MARTITZENA

## La noche que mi madre mató a mi padre

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa  
Perseo Zineforuma. 7 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.



Agerpenak, desagerpenak, airean flotatzen duten ikusleak, egundoko eraldaketak eta askoz gehiago eskainiko ditu ikuskizunak. © SUN MAGOA

# Sun magoaren ikuskizuna, Areetan

Ilusio Handien Espainiako Saria irabazi zuen Sun magoak, 2011n. Oraingo honetan, bere lanik berriena den *Magic specular* eskainiko du aziak, Areetan. Ikuskizun horretan, magia, antzerkia, musika, fantasia, efektu bereziak, argia, soinua eta kolorea uztartzen ditu, modu ezin hobean. ◀

Noiz: Otsailak 26, domeka.

Ordua: 18:00

Non: Andrés Isasi musika-eskola (Areet).

Sarrera: 5 euro.

**1** Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

**1** Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus)

**2** [www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus) atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.





Bizkaiko Taldekako Txapelketaren lehenengo fasea apirilaren 3ra bitartean jokatuko dute; Uribe Kostak sei talde aurkeztu ditu

### Basordako gorringoak

Erlantz Iberguengoitia, Inge Beitia, Iñaki San Nikolas, Jagoba Pereda, Mikel Albizu, Xabier Albizu, Peru de Pedro.

### Gora Tangora!

Irene Ezkurra, Jone Uria, Joseba Santxo, Nahikari Ayo, Julen Lamberto, Kerman Diaz, Maider Barañano, Peio Unzurrunzaga, Unai Mendiburu, Zaloa Lopez de Munain.

### Leioara begira

Aitzol de Castro, Alpon Sardon, Beñat Vidal, Jon Ortiz, Oier Iturralde, Xabi Sainz de la Maza.

### Leioatik begira

Antxon Illaro, Elene Uribe, Galder Bilbao, Inazio eta Peru Vidal, Karlos Aretxabaleta.

### Tosu Bizirik

Gabi Basañez, Iñigo Kortazar, Josu Landeta, Daniel de Miguel, Olatz Larrinaga, Aitor F. de Martikorena.

### Ulutiko intxhaulak

Aritz Landeta, Arrate Illaro, Paule Loizaga, Zuriñe Gonzalez, Maddalen Ruesgas, Goizalde Atxutegi, Xabi eta Itxaso Paya, Imanol Uria, Lizar Begoña.

# Taldeakako bertsolari-txapelketa

**Elkargune ludikoa eskaini** diete Bizkaiko bertso-eskolei euren oinarria lantzeko. ALBE prest dago lehitzeko!

**B**izkaiko Bertsozale Elkartek (BBE) txapelketa berria martxan ipini du: Bizkaiko Taldekakoa. Ekimen horren helburu nagusia da Bizkaiko oinarria indartzea, «eskualdeen eta bertso-es-

kolen arteko elkargune ludikoa sustatzea». Hala, daborduko 200 lagun baino gehiagok bat egin dute egitasmo berriagaz, 30 taldetan banatuta. Uribe Kostak gogotsu dagoela erakutsi du: sei talde prestatu ditu. Aurkeztutako

artean askotariko profilak daude: oso gazteak direnak, beteranoak, aspaldi bertsoetik aparte ibili direnak, hasiberriak, Bizkaiko txapelkunak, txapelketetan izandakoak eta egundo parte hartu ez dutenak. Helburua pluraltasuna lortzea zen, «eta lortu da» azaldu du BBek. Sei parte-hartzaile edo gehiago izango dituzten taldeak egongo dira: hiru bertsolari, epaile bat, gai-jartzaile

bat eta laguntzaile batez osatuko dira. Hiru talderen artean jokatuko dituzte saioak, eta horietako bakar batek egingo du aurrera, hurrengo fasera. Lehenengo fasea apirilaren 3ra bitartean izango da. Egun horretan jakingo da zeintzuk pasatuko diren bigarren faseara. Fase hori apirilaren 24an hasiko da. Finala ekainaren 3an izango da, Euskal Herriko Eskolartekoagaz batera. ◀

Hitza emanda



## Mozorroa

Otsaila iristean zer nolako kezka: «Ze mozerro da hori?» jendea galdezka... Aratusteetako katamalo festa egunerokoaren isla baino ez da!



ITXASO PAYA RUIZ  
Bertsolari algortarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



info+: Ainhoaortells.com

**Ainhoa Ortells** artista algortarrak erakusketa berriak prestatu ditu, apirilera bitartean

**D**aborduko, *Pintura & pINtuRa* margo-erakusketa ikusgai ipini du Ainhoa Ortells artista algortarrak, Durangoko Arte eta Historia Museoa. Bertaratu eta algortarraren koadroak ikusi gura dituenak martxoaren 5era arte izango du horretarako aukera. Halere, Durangaldera hurreratu ezin dena ez da zertaz kezkatzeko beharrik; izan ere, Ortellsek berak jakinarazi duenez, «Getxoko Udalak daroan Torrene Aretoan, apirilean, segituko dut Durangon erakutsitakoaren ildoagaz». Dena den, zehaztu duenez, oraindino erakusketa horren datak adosteko dituzte. 2017. urtea ondo hasiteaz gainera, erdialdean ere beharra ez du faltan izango artista algortarrak; hala, maiatzean Madrilera joango da Garrobiagaz, Getxoko artisten harrobiagaz, «Art Room galerian garrobitar garen hainbat artiston lanak erakustera», aurreratu duenez. ◀

## Leioako Umore Azokak 506 proiektu jaso ditu

**A**urtengo Umore Azoka hastear dagoela iragarri du daborduko Leioako Udalak: «atzerako kontaketa hasi da...». Lehenengo pausoa eman dute, azokaren irudia izango dena ezagutaraziz. Aurrerantzean, «dena jarraian» etorriko dela diote. Laster, Leioa bisitatuko duten konpainiak ezagutaraziko dituzte, «eta eskarenen kopurua ikusita, azoka indartsua datorrela iragartzen dizuegu», aurreratu dute. Aurten 506 proposamen artistiko jaso ditu jaialdiak; horietatik 64 (%12,64) Euskal Herrikoak dira; 255 (%50,39) Espainiako estatukoak; eta 187 (%36,95) nazioartekoak, 27 herrialde desberdinetakoak, barbarako Frantzia, Italia, Erresuma Batua, Alemania, Belgika, Txekiar Errepublika, Ukraina, Finlandia, Amerikako Estatu Batuak, Kanada, Cabo Verde, Uruguai edo Japonia eta abarrekoak.

Eskabide-kopuruaren igoera horrek azken urteotako «gorantzako joe-



Aurtengo Umore Azokaren irudia.

raren ildoari jarraitzen dio, eta argi erakusten du konpainiek duten interesa Umore Azokan parte hartzeko, erakusleho aparta eta kaleko artean galdu ezinezko hitzordua delako», udal-iturriek azaldu dutenez.

Dagoeneko, Leioako Udala hasi da Umore Azokaren 18. edizioan parte hartuko duten konpainiak eta ikusizunak hautatzeko prozeduragaz, eta laster ezagutaraziko dituzte aukeraturako artistak eta lanak. ◀

info+: [www.umoreazoka.org](http://www.umoreazoka.org)





Zientzia-pilulak

**EDUARDO  
SAN ANDRES ARANA**  
Matematika irakaslea

## Pentsakera arrazionala vs aurreiritziak

**G**ure gaur eguneko gizar-tearen arazoaren zerrenda ez da laburra. Behar bada, zerrenda horren lehendabiziko postua pentsakera zientifikoaren eta arrazionalaren presentzia urria da. Datu objektiboetan ez ezik, inpresio hutsetan oinarritzen baditugu gure iritziak, ondorio okerrak, eta askotan arriskutsuak, aterako ditugu. Adibide soil bat jarzearren, Frantzian egindako inkesta beten arabera, populazio musulmanaren portzentaiari buruz galdetuta, %30 dela uste du jendeak, benetako portzentaia %6 izanda. Egin ditzagun zenbaki batzuk...

Gaur egun munduko biztanleria 7.000.000.000 pertsona ingurukoa da. Asko al da hori? Eman dezagun biztanle bakoitzari metro koadro bat eskaintzen diogula, eta gutako bakoitza bere metro koadroan kokatzen dela, xake taula erraldoi baten antzera. Zein tamaina edukiko luke xake taula erraldoi horrek? Azalera, argi eta garbi, 7.000.000.000 m<sup>2</sup> izango litzateke, eta horrela izanik, zenbat neuruko luke xake taularen aldeak? 25 m<sup>2</sup>-ko karratu baten aldeak 5 metro da, 5x5=25 delako, hortaz, egin beharrekoa 25-en erro karratua besterik ez da (gogoratzen al dituzu zure eskolako urteak?). Gure kasuan, egin beharrekoa  $\sqrt{7.000.000.000}$  da, eta horren emaitza 83.666 metro da, hau da, 83 kilometro inguru. Gutxi gorabehera Bilbotik Donostiaraino dagoen distantzia lerro zuzenean eginez gero. Horrenbestez, sinestezina dirudien arren, gure planetan bizi garen gizaki guztiok laukitxo txiki horretan sar gintezke. Hortaz, gehiegi al gara? Edo modu desegokian dauzkagu banatuta lekua eta baliabideak? Zein da benetako problema? Zientziak datuetan oinarritutako erantzunak biltzera gonbidatzen gaitu beti. Onar dezagun gonbidapena. ◀

# «Txikiek gurasoei euskara irakasteak motibatzen du»



Erica Liquetek ahotsa ipini die bere ipuinetako pertsonaia denei; modu berean, txirula jo du istorio guztietan.

**Sorgina Txirulina proiektua** hasi berri du Erica Liquete Villamor sopeloztarrak, euskaldunak ez diren gurasoek euskara ikas dezaten, ipuinen eta seme-alaben laguntzaz.

TESTUA: **IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA**  
ARGAZKIA: **HODEI TORRES**

**S**ortzez algortarra bada ere, Sopelan bizi da Liquete. 32 urte-gaz, eskarmentu handia du ipuin-kontalari eta txirula-jole gisa; publizitate- eta komunikazio-agentzia batean egiten du behar. Sorgina Txirulinaren arropa jantzita egitasmoaren gaineko galderak erantzun ditu, abegikor.

**Zer lortu gura du Sorgina Txirulinak?** Sorgina Txirulinaren helburua da euskaldunak ez diren pertsonak euskara ikastea, seme-alaben eta ipuinen laguntzagaz.

**Guraso euskaldunek ere erabil ditzakete Sorgina Txirulinaren ipuinak?** Bai, denentzat da. Azken finean, euskarazko ipuinak dira; hortaz, denok erabili eta gozatu ahal ditugu.

**Ipuinak zuk asmatutakoak dira, ala jaso egin dituzu?**

Nik asmatutakoak dira. Jorratzen ditudan gai denek ematen dute balioaren bat transmititzeko bidea. Bestalde, Euskal Herriko kontuak, tradizioak eta

pertsonaiak erabiltzen eta ezagutarazten ahalegintzen naiz.

**Zeintzuk dira orain arte sortu dituzun ipuinak? Konta egiguzu bateren bat...** Pasa den astekoa izan zen Inauterien gainekoa: Ziripot, Miel Otxin eta Zaldikoren istorioa; baina, beste bertsio bat egin nuen, benetakoaren amaiera apur bat bortitza delako; hala, nik

“*Ipuinak musikagaz doaz, flautagaz; hori dela eta naiz Sorgina Txirulina*”

asmatutakoa beste modu batekoa da. Beste bat da Korrikaren gainekoa. Aurreko bat egin nuen Mari Domingiri buruz. Beste ipuin bat sortu dut barazkien kontuak jorratzen dituen, zeintzuk diren sasoi bakoitzeko ortuariak, eta horrelakoak.

**Zein bitarteko erabiltzen dituzu ipuinak gurasoei helarazteko?** Sorgina Txirulinaren webgunean

ipintzen ditut ipuinak; bertan daude den-denak. Ipuin bakoitzak badauzka zenbait kontu: pdf dokumentua, euskarazko eta erdarazko testuagaz; unitate didaktikoa, bertan agertzen da gurasoek ikasiko duten teoria, hiztegia edo estruktura; eta ipuina entzuteko soinu-fitxategia, amak edo aitak entzun dezake intonazioa nolakoa den eta esaldiak zelan egin behar dituen, eta horregaz konta diezaiokie istorioa txikiari, alabari edo semeari; azken atal bat dago: jarduera-proposamenak; horretan, ipuin bakoitzagaz lotuta dagoen zerbait proposatu dugu, nagusiek ikasitako teoria praktikan ipintzeko eta umeak ere parte har dezan ipuin horren inguruan.

**Zalantzaren bat izanez gero, zugana jo dezakete gurasoek?**

Orain arte inoiz ez zait halakorik gertatu; dena den, baten batek zalantzaren bat badauka, bai, galdetu ahal dit.

**Umeen papera ere garrantzitsua da.** Nire iritziz, txikiek gurasoei euskara irakasteak motibazio-puntua ematen dio proiektuari, apur bat harreman hori sortzen lagunduko duelako euskararen inguruan.

**Zertan dira bereziak ipuinak?**

Ipuinak musikagaz doaz, flautagaz; hori dela eta naiz Sorgina Txirulina.

info+: [Sorginatxirulina.eus](http://Sorginatxirulina.eus)



**Arantzazu Ametzaga Iribarrenek** (Buenos Aires, 1941) joan den martitzenean aurkeztu zuen *Contraviaje. De Nueva York a Gernika pasando por Berlín* (Ekin, 2015) liburua, aitaren jaioterrian, Algortan. Bingen Ametzaga Aresti euskal idazlea eta politikaria zuen aita, eta ama Mercedes Iribarren Gorostegi, Areetan finkatutako mutrikuar enpresari-familiakoa. Gurasoak Amerikara erbesteratu ostean, Argentinan jaio zen; «ametsetako herrira» itzultzeko aukera eduki du, gurasoek ez bezala.

## «Nire aitari entzun nion lehenengo hitza ‘Algorta’ izango zen, seguruenik»

TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

### Noiz jakin zenuen erbesteratuen alaba zinela?

Beti jakin izan dut 1936ko Gerraren ondorioz atzerri-ratutako euskal herritarren alaba nintzela. Banekien Euskadi izeneko beste aberri bat geneukala eta noiz-bait bertara itzuliko ginela. Maletak prest genituen; izan ere, inork ez du espero erbestealdia 40 urtez luzatzea. Hala ere, askotan esaten diet nire seme-alabei nire bizitza emankorra izan dela, zentzu askotan; pertsona eta herrialde paregabeak ezagutu ditut. Tamalet, ez nuen haurtzaroaz gozatu; Buenos Airesen jaio arren, nik ere sumatzen nituelako atzerriratu behar izanagatik gurasoen kezka eta minak. Atzean utzi zuten hori guztia neurea ere bazen, zentzu batean.

### Idatzitako liburuetan igar daiteke erbestealdia?

Argentinan, Uruguain eta Venezuelan bizi izan naiz; Caracasen jaio ziren nire lehenengo hiru semeak: Xabier, Peio eta Mikel. Herrialde horietako guztietako lagunak ezagutzeko aukera izateaz gain, euren historia ikasi nuen; izan ere, Bibliotekonomiako ikasketak egin nituen, Humanitateen arloan. Historiaren bidez, eurak hobeto ezagutzen ikasi dut. Eta hori derrigorrean islatu behar dut idazten ditudan liburuetan.

### Zeini esker zaletu zinen idaztera?

Aitarekin hasi nintzen idazten, Bingen Ametzagarekin (Algorta, 1901 - Caracas, 1969). Beti diot nire aita izateaz gainera, maisua ere bazela. Bera algortarra zen, eta abokatua. Bere lanak idazteaz gainera, Literatura

Unibertsaleko autore klasikoen liburuak euskarara itzuli zituen; izan ere, berarentzat erronka handia zen William Shakespeare (Ingalaterra, 1564- 1616) bezalako idazle handien obrak gure hizkuntzan ere irakur zitezkeela frogatzea. Erbestealdiak gabezia ugari eragin arren, itzulpengintzan jardun zuen, musu-truk.

“ **Karisma handikoa zen Jose Antonio Agirre; garai hartan Euskadik behar zuen gizona zen, zalantzarik gabe** ”

### Zelan hartu zenuen aberrira itzultzeko erabakia?

Algorta gogoan zeukala, Caracasen hil zen aita. Birtartean, urte luzez nire bikotekidea izan zen Peiorekin ezkondu nintzen, Manuel Irujoren (Lizarran, 1891 - Bilbo, 1981) iloba zena; euskal herritar bihurtzea ala amerikarrak izaten jarraitzea aukeratu behar genuela uste genuen biok. Horrez gainera, bere osabaren oinordeko politikotzat zeukaten nire senarra, eta Nafarroan EAJ alderdia berrantolatzeke enkargua eman zioten. Zeregin hori aurrera ateratzeko asmoz, aberrira itzuli ginen. Nafarroan ezkutuan zegoen euskal nazionalismoaren ahotsa ozen entzunaraztea

lortu zuen Peio Irujok (Biarritz, 1940 - Iruñea, 2008). Gainera, esan behar dut ez naizela inoiz damutu Caracasetik nafarren lurraldera etortzeaz.

### Nafarroaz gainera, gainontzeko euskal lurraldeak gogoan eduki dituzu beti zure liburuetan.

Nafarroan bizi naiz; Iruñean jaio zen nire laugarren semea, Enekoitz. Gainera, eleberri historikoak idazteko, Arturo Campiónen (Iruñea, 1854 - Donostia, 1937), Manuel Irujoren eta beste hainbat nafar handiren bizitzetan murgildu nintzen. Hala ere, egia da, gainontzeko lurraldeak ez ditudala inoiz ahaztuko. Aitaren aldetik, bizkaitar peto-petoa naiz; baina, amari esker, gipuzkoarren, nafarren, arabarren eta lapurtarren odola daramat zainetan. Euskal herri guztiak maite ditut.

### Algortan aurkeztu zenuen liburuan, istorio bi nahasten dira, ezta?

Bai. Istorio bi kontaktzen ditut *Contraviaje. De Nueva York a Gernika pasando por Berlín* (Ekin, 2015) izenburuko liburuan. Alde batetik, gaurkotasunarekin pareka dezakegu: Julene izeneko liburuzaina euskal gazteriaren etorkizuna balitz bezala irudikatzen ahalgintzen naiz. Beste alde batetik, iraganaz ari naiz; Jose Antonio Agirre (Bilbo, 1904 - Paris, 1960) lehen-dakariak egin behar izan zuen bidaia arriskutsua dut hipzide. Liburuzaina den Julene, lagun baten bitartez, iragan ilun eta beldurgarri horretan murgilduko da; Adolf Hitler (Braunau, Bohemia, 1889 - Berlin,





deen artean dago autodeterminazioa; euskal herritarrok horretaz baliatzea erabakitzen badugu, besteek errespetatu egin beharko dute. Madrilen edo Parisen dagoena dagoela, errespetatu egin beharko du. Hala ere, badakit ez dela horren erraza. Kar, kar.

#### **Atlantikoaren beste aldetik, zelan ikusten dute Euskal Herriaren gaur egungo egoera?**

Egin dezakeguna baino gehiago eskatzen digute batzuetan. Kontuan hartu behar dugu, batez ere Argentinan eta Uruguain, eta neurri batean Txilen ere bai, karlistaden ostean ihes egindako euskal herritarrek sortutako komunitateez ari garela. Gure foruak defendatzeko azkeneko gerra 1876an amaitu zen; ordu-rako, 1878an, existitzen ziren euskal etxe batzuk, oso oinarrizkoak, Buenos Airesen eta Montevideon. Horrek argi adierazten du herritar horiek sentitzen zuten deserriratzea. Aldi berean, nekazekin ziren euren ideiak defendatzeko orduan. Caracaseko euskal etxeari dagokionez, 1936ko Gerra amaituta, ihesean zihoazen euskal herritarrek zabaldu zuten, 1940an; hamar urte beranduago inauguratu zuten gaur egun zutik dagoen zentroa. Esan daiteke luxuzko enbaxadak dauzkagula munduko kontinente guztietan: Amerikan, Boisetik eta Nevadako inguru horretatik guztitik Argentinako panparaino, euskal etxeak aurkituko ditugu.

#### **Zertan lagun dezake euskal diasporak euskal gatazka konpontzen laguntzeko?**

Beharrezkoa den heldutasun-mailara eta hurrengo pausoa emateko batasun-mailara heltzen garenean, oso lagungarriak izango dira euskal etxeak, nire ustez. Gure alde hitz egin dezakete botere-guneetatik hurbil dauden zentro horien guztien ordezkariak. Oso sinbolikoa izango da, beharbada; baina, ezin dugu ahaztu Gernikako arbolaren kimu bat dagoela Buenos Aireseko Etxe Arrosaren aurrean; bertan kokatzen da Argentinako presidentearen bulegoa. Horrez gainera, beste kimu bat dago Washingtonen, kapitolioan.

#### **Zein pauso eman beharko litzateke bake-prozesua helmugara iris dadin?**

Nik uste dut ondo goazela: mila urtetan ez dugu lehendakari abertzalerik izan Nafarroako Gobernuan; bestalde, nazionalistak dira Hegoaldeko lau hiriburuetak alkateak. Horretaz gain, Baionan inoiz ez dugu izan Jean-Rene Etxegarai bezalako ordezkariak. Frantziako iraultzak kalte izugarria egin zigun euskal herritarroi; gaur egun, aldiz, herri-elkargo bakarra dago Ipar Euskal Herrian. Hala ere, idazlea baino ez naiz.

#### **Pausoak eman dira...**

Ez dut indarkerian sinisten; beste arrazoi batzuen artean, armak eskuan izan ditugunean beti irabazi gaituztelako, eta oso nekagarria izan delako herriarentzat. Biolentzia, heriotza eta gizakia iluntasunera eraman dezaketen kontu guztiak gorroto ditut. Gaur egun, ordea, batasuna harilkatzen goaz pixkanaka; herria osatzen goaz.

#### **Liburu-egitasmorik badaukazu eskuarteetan?**

*Alsina* itsasontziaren bidaiak hitz egingo dut hurrengo eleberrian; gutun ezberdinak bailiran idatzi dut. Hala ere, ez dakit noiz argitaratuko dudan. Nire gurasoak 1941eko urtarrilaren 15ean atera ziren Marseillako portutik, *Alsina* itsasontzian; zehazki 1942ko apirilean heldu ziren Buenos Airesera. ◀

1945) eta Gestapo atzetik dauzkan gizon batekin topo egingo du. Berlinen galduta egon arren, garaile aterako da Jose Antonio Agirre. Errealitate bi islatu nahi izan ditut: batetik, etorkizun oparokoa ez zirudien iragana; bestetik, itxaropentsua dirudien oraina.

#### **Zein mezu helarazi gura diezu irakurleei?**

Gaur egungo egoera ona dela, Euskadin. Bestalde, 1936ko Gerra osteko urteak gogorak izan arren, ez ditut orain horrela ikusten. Adibidez, politikaren arloan, garai horretan ereindakoak balio izan digu kendu izan ziguten gauzetako batzuk berreskuratzeke. Euskara ere hobera doa pixkanaka; 1950ean, gure hizkuntza hiltzat ematen zuten nire aitak, Telesforo Monzonek (Bergara, 1904 - Baiona, 1981) eta euskararen arloan zebiltzan askok. Jazarpena itzela izan zen. Hori guztia igar daiteke *Contraviaje. De Nueva York a Gemika pasando por Berlín* liburuan.

#### **Berezia da zuretzat liburu bat bertan, Algortan, aurkeztea, ezta?**

Bai. Nire ametsetako herria da Algorta. Seguruenik, nire aitaren ahotik entzun nuen lehenengo hitza horixe bera izan zen; egun guztietan hitz egiten zidan bere herri maiteaz.

#### **Jose Antonio Agirre hurbiletik ezagutu zenuten?**

Bera ere algortarra zen. Bestalde, Jose Antonio Agirrek buru izan zuen lehenengo Eusko Jaurlaritzan Lehen Hezkuntzako zuzendaria izan zen nire aita;

berak eman zien izaera juridikoa ikastolei. Nire aitaren lagun mina zen lehendakaria; etxekoez bezala hitz egiten genuen hari buruz. Nik Montevideon ezagutu nuen; argazki batean agertzen naiz Agirre-ekin, poxpolinez jantzita, lore-sorta bat eskuetan daukadala. Karisma handiko gizona zen; begiratzen

**“ Mila urtetan ez dugu lehendakari abertzalerik izan Nafarroako Gobernuan. Nahiko ondo goazela uste dut ”**

zintuenean, munduan zu bakarrik existitzen zinela ematen zuen. Garai hartan Euskadik behar zuen gizona izan zen Agirre.

#### **Zer irizten diozu euskal estatuari eta erabakitzeko eskubideari ?**

Ezin dugu ahaztu behin baino gehiagotan izan gara estatua; Baskoniako dukerria izan zen lehenengoa. Bestalde, Nafarroako Erresuma euskal estatu handi bat izan zen; pixkanaka kendu egin zigutena. Hori guztia idatziz dago jasota gure historian. Hartara, badaukagu zertan oinarritu. Nire ustez, giza eskubi-





## Bizkaitik basamortura

Bizkaiko taldeak egun bi emango ditu Marokora jaisten, sei egun basamortua gurutzatu eta laguntza banatzen, eta, beste bi egun, etxera bueltatzeko. © PANDA RAID

**Lau uribekostar basamortura** joango dira martxoan, Marokoko eskoletan eta ospitaleetan laguntza banatzera. Panda Raid Bizkaia seikotearen barruan joango dira.

**E**lkartasuna eta kirola uztartuko dituela iragarri du Panda Raid Bizkaia taldeak, Sopelan egin duen aurkezpenean; seikoteak martxoan egingo du distantzia eta erresistentzia handiko Marokoko Panda Raid probako ibilbidea, baina ez dira lehiatuko. Izan ere, taldekideek uste dute aurreko elkartasun-probak muzin egingo diola ohiko izpirituari. Horrega-

tik, Afrikara eroateko materialak jasotzen dabilta, euren kabuz; daborduko 150 kilo batu dituzte: koadernoak, margoak, liburuak, higiene-produktuak, betaurreko graduatuak eta abarrik. Basamorturaino eroango dituzten hiru Panda Marbella modeloko autoetan sartuko ez dena Mugarik Gabeko Medikuek elkarteak garraiatuko du hegazkinez. Hala, bizkaitarrei eskatu

diete Marokoko jende behartsuena laguntzeko produktuak eman ditzaten: arropa, zapatak, jostailuak, eskolarako materiala, besteak beste. Taldeko hiru partaide sopoloztarrak dira, Luis Miguel Eguiluz, Iker Ortega eta Carlos Pérez; eta beste bat, algortarra, Koldo Uria. Seikotea osatuko dute Alfredo Varela santurtziarrak eta Unai González trapagarandarrak. Ideia taldeko lau suhiltzaileek izan zuten, hasieran; beranduago batu ziren Pérez eta Uria.

Martxoaren 4tik 11ra egingo da Marokoko Panda Raid rally-amateurraren 9. edizioa, Nador portutik Ma-

rakex hirira; antolatzaileen arabera, 300 taldek egin dute inskripzioa basamortuko 4.000 kilometro horiek gurutzatzeko. Ostera, Panda Raid Bizkaia taldeak martxoaren 7tik 17ra egingo du bere ibilbidea, Merzouga herriraino, Marokoko hego-ekialdean. Gainera, 7 egunean egin beharrez, 10 egun emango dituzte bidean; baina, ohiko baldintzei eutsiko diete, panda modeloko autoetan joanez, bestelako teknologia barik. Ibilbidea Marokoko hegoaldetik igarotzen da, hareaz eta desertuz osaturiko pistetatik. ◀

info+: Pandaraidbizkaia.com



**Isaac Aketxe bueltan** da, denboraldiko lehenengo zatia lesionatuta eman ostean. Albacete futbol-taldeko jokalaririk itzurbaltzetarrak partida oso bat jokatu du, Deajeon talde korearraren aurkako lagunartekoa, hain zuzen ere. Bestalde, berriro ere titularra izateko borrokan dabil. © ALBACETE BALOMPIÉ

## Mister Pentland gogora ekarri dute, liburu batez

**J**on Rivas kirol-kazetariak argitaratu du *El prisionero de Ruhleben* (Siníndice, 2016); algortarraren zazpigarren liburua da. Bertan, akordura ekarri du Mr. Frederick Pentland entrenatzaile ingelesa. Pentlandek Arenas futbol-taldea entrenatu zuen 1927/28 denboraldian, Espainiako Liga sortu aurretik; 16.000 pezeta ordaindu zizkion klubak. Entrenatzailea 1883an jaio zen Wolverhampton herrian. Gaztetan nazioarte-mailako futbol-jokalaria izan zen. Lehen Mundu Gerran, atxilo hartu zuten alemaniarrek eta Ruhlebengo kontzentrazio-eremuan egin zen preso. Bertan, futbol-liga an-



Pentland, eskuman, Athleticek fitxatu zuen 1929an.

tolatu zuen. Gerraren ostean, entrenatzaile izan zen 1920ko Olinpiar Jokotan, Anberesen. Ondoren, Espainian eta Euskal Herrian lan egin zuen, tartean Athleticek. ◀

info+: jonjivas.com



# Getxo Saskibaloia Taldea, goian



Joaneko partidariak 41-57 irabazi zion Getxok Arangureni.

Sailkapeneko lehena da Getxo Saskibaloia Taldea (GST), Hego Euskal Herriko Saskibaloia Ligaren Bigarren Mailan. Emakumeen talde seniorrak beste garaietan bat lortu zuen pasa den domekan, Atarrabian, Paz de Ziganda ikastolaren aurka 35-56 irabazita. Getxoztarrak taularen buru dira 17 jardunaldi jokatu ostean; 9 falta oraindino. Getxoztarrak 29 puntu dituzte, Errioxako Campus Promete fundazioak eta Express Hondarribia Ikasbasketen aurka. Halere, kontuan hartzekoa da errioxarrek ligako atsedenaldira biak egin dituztela; horrenbestez, 15 partida jokatu dituzte. Getxok, ostera, atsedenaldira bakarrik irabazi du

orain arte. Jokatuak 16 partidetatik, 13 partidetan irabazi dute hori-beltzek. Zoritxarrez, jasandako hiru porrotetatik bi gaur egungo arerio nagusien aurka izan ziren: Campus Prometeren eta Express Hondarribia Ikasbasketen aurka. Urribekostarrak garaitu dituen hirugarren taldea Gasteizko Las Bellotas izan da; taulako zazpigarrena da gaur egun. Datorren zapatuan, zortzigarrena den Aranguren taldea hartuko du Getxok, Faduran, Lehenengo Mailara igotzeko puntuak batzeko guran. Bestalde, oso bestelako itxaropena du Askartza taldeak, taula bereko azken-hirugarrenak. Leioztarrek jaitzieratik alde egin gura dute, Logroñoko CBSI Veneri irabaziz. ◀

## Mendive eta Herran nagusitu dira Sopelan

Joan den zapatuan, Sopelako XII. Duatloia ospatu zen. Irabazleak honakoak izan ziren: Maria Mendive gipuzkoarra, BPXport kirol-klubekoa, 1.07.17ko denboragaz; eta Urko Herran arabarra eta ArabaTri taldeko kidea, 54.59ko denboragaz. Taldekako lehia-

ri dagokionez, Sestao Triatloi Taldeak irabazi zuen emakumezkoen mailan; ArabaTri arabarrak, gizonezkoen mailan. Proba Hirubi Triatloi Taldeak eta Euskadiko Triatloi Federazioak antolatu zuten; EAeko duatloi-zirkuituko bigarren esprint-proba izan zena. ◀



ArabaTri taldeak gizonen banakako eta taldekako lehiak irabazi zituen. © ENKARTERRIKO TRIATLOI TALDEA

## Hamaika domina Uribe Kostako piraguistentzat

Neguko Ur Bareetako Bizkaiko Piraguismo Txapelketara arte itxaron izatea merezi izan die eskualdeko piraguismo-taldee; otsailaren 5ean egitekoa zen proba, baina, azkenean, piraguek hilaren 19an hartu zuten Butroe ibaia. Hala, hamaika emaitza on eta 11 txapela ospatu ahal izan dituzte Plentzia eta Barrika piragua-taldeek eta Getxo Kayak taldeak. Kluben sailkapenean, barrikoztarrek irabazi zuten Plentzian, 1.567 puntu lortuta. Podiuma, Getxo Kayakek (824) eta Plentziako Piraguismo Talde antolatzaileak (616) osatu zuten. Horrez gainera, beste hamar urrezko do-



info+: [Hiruka.eus/kirolak](http://Hiruka.eus/kirolak) © GETXO KAYAKA

mina geratu ziren eskualdean: Ainhize Olaziz, Isabel Goikoetxea, Irene Gana, Karite Eizmendi, Andoni Intxaurtieta, Mikel de Velasco, Gonzalo Fdez. de Castro, Aitor Uriarte, Andima Altuna eta Higinio Rivero kirolarienak. ◀

## Getxok dominak batu ditu Sofian eta Azkoitian

Xabier Pereda karateka getxoztarrak brontzezko domina irabazi zuen pasa den aste-akabuan, Bulgariako hiriburuan jokatuak Europako Karate Txapelketan. Peredak Kata modalitateko taldekako proban lortu zuen metala, kadete-gazteen mailan, Mario Tardio valentziarraz eta, Martín Ruiz kantabriarraz osatutako taldean. Borrokalariak aitortu duenez, «urrezkoaren zaporea» izan du brontzeak berarentzat. Aurretik, Euskadiko Karate Txapelketa seniorrean, Peredak urrezkoa jaso zuen Katan. ISAN Getxoko Karate Klubeko beste karateka batzuek ere lortu zituz-



© JAVIER PEREDA - GETXO KARATE KLUBA

ten metalak Azkoitiko proba horretan: Leire Obregonek (urrea, Katan); Ane Calventek (urrea, Kumiten); Ekaitz Pintadok (zilarra, Katan); Jaime Fuentek (zilarra, Kumiten), eta Julen Barre-rasek (brontzea, Katan). ◀

**hiruka**  
zaitez!

Urtean  
**35€**  
baino ez

Trukean:  
zozketak,  
sariak ia astero,  
astekaria eguaztenero...

**saiazgetaria**  
HOTELA

Roke Deuna 25  
Getaria  
T. 943.140.143  
[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com)





# Baqué-BH errepidera aterako da

**E**lkar Kirolak txirrindularitza-elkartearen 23 urtez azpikoen taldea babesteari utzi zion Campos kontserba-enpresak pasa den denboraldiaren akabuan; lau urteko harremana izan ostean. Camposen lekukoa Saroni txirrindulari-markak hartu zuen; baina, agindutako laguntza ez zen inoiz heldu; gaia epaitegietan dago. Horrenbestez, ziztu bizian eta lehenbailehen, beste babesle bat aurkitu du Berango, Leioa eta Erandioko udalek sustatutako eskolak. Hala, aurren, Baqué-BH deituko da 23 urtez azpikoen taldea. Alex García Celaya zuzendari berangoztarraren agindupean jardungo dute 16 txirrindularik, denera. Iñigo Landaluze leioztarrak osasun-arazoengatik lehiatzeari utzi dio, eta kadeteak entrenatzen ditu orain, bera hazitako harrobian. Xuban Errazkin, ostera, Portugalgo Radio Popular Boavista taldean dago. Oskar Urkiola leioztarra taldean mantenduko da, besteak beste. ◀



Taldearen erdia iaz ere jardun zuten hainbat txirrindularigaz osatu dute; beste erdia, fitxaketa berriakaz. © BAQUÉ-BH

## Berangon batuko da Elkar Kirolak eskola

**B**arikuan, otsailaren 24an, Elkar Kirolak txirrindulari-eskolak bilera egingo du, 19:30ean, Berangoeta kultur etxean. Berango, Leioa eta Erandioko udalek sustatutako eskolak eskualdeko gurasoei azaldu die, «zuen umeari bizikleta gustatzen bazaio, eta eskola zertan datzan jakin nahi baduzue, erdu Berangora; gonbidatuta zaudete». 2003tik 2010ra bitartean jaiotako neska-mutilek parte hartu ahal izango dute eskolan. Bertaratzerik izango ez dutenek badute aukera izena emateko, posta elektronikoz.

Bestalde, Bioracer Elkar Kirolak taldeak bere kiderik onenetako bat



Saioa Gil. © ELKAR KIROLAK

galdu du: Saioa Gilek txirrindularitza utzi du; karrantzarrak ez du horren arrazirik azaldu. Urtarrilean, bronzeko domina lortu zuen Espainiako Ziklokros Txapelketan. ◀

info+: [ek.esuelas@gmail.com](mailto:ek.esuelas@gmail.com)

## Tranko zaldien oztopo-jauzien lehia, prest

**E**uskal Hipika Federazioak inskripzio-epea zabaldu du Tranko zaldien oztopo-jauzien hastapeneko lehiarako. Zirkuituak 5 proba izango ditu, apirilaren 9tik urriaren 14ra arte, tartean Erandioko Goiherri zaldi-klubean, irailaren 2an. Lehian parte hartu ahal izango dute aurretik metro bateko altuerako oztopoak gainditu ez dutenek, proba federatuetan. Zirkuituak lau sailkapen izango ditu: 0,50 metro, 0,70, 0,80, eta 1,00 metro. Lehenengo bietan parte hartu ahal izateko, interesdunek 10 euro ordaindu beharko dituzte; besteetan parte hartzeko, 15 euro. ◀



© BIZKAIKO HIPIKA FEDERAZIOA

**GetxoGas**  
GetxoGason  
Euskararekin  
bat!!  
Getxo eta Berango artean  
94 430 15 00

**aldai**  
Tapiztegia  
Dekorazioa  
Erakusketa  
Tailerrak  
Basagoiti etorbidea 32  
48990 Algorta  
94 460 90 31

**GAVRKO**  
1967  
50. URTEURRENA  
GIZONENTZAKO  
MODA  
ZABALA, 9. ALGORTA  
94 460 70 84

**Iñaki Bitxitegia**  
Montblanc, Longines eta  
TagHeuer agentzia ofiziala  
Villamonte plaza 3  
94 430 23 45  
Telletxe 1  
94 460 27 41  
Algorta



# hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...  
**eta abantaila ugariz goza egizu!**

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzaile eta partaide izango zara.

**Non da? lehiaketa**



**SARIA**

**Euria antzezlanak ikusteko  
3 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu**

Sarrerak lortu gura badituzu, otsailaren 28a baino lehenago helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: [administrazioa@hiruka.eus](mailto:administrazioa@hiruka.eus) edo 944 911 337.

**Otsaileko saria**  
**Itxasgane jatetxean menua, bi lagunentzat**



HIRUKAlagunen eta bazkideen artean zozkatuko dugu hilabete honetako sari hau, otsailaren 28an. Oraindino HIRUKAlagun ez bazara, zeren begira zaude?

**Zelan egin HIRUKAlagun?**



**Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:**

**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna/](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna/)  
**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)  
**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48991 GETXO**

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileekin harremanetan jartzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikitate helarazteko. Bestelako erabilerak erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak nahi duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake, helbide honetara idatziz: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus)

## Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

4	1			5	9		
	5	6			4		1
7		2	8				
						7	9
2		1					6
	6		1			4	8
		4					
	2		4	5	7		
6				2			

## Soluzioa

4	1	5	6	2	3	7	8	9
3	9	7	8	5	4	6	2	1
2	6	8	9	1	7	4	3	5
8	7	2	3	7	1	5	9	6
9	5	3	4	8	6	1	2	7
6	7	1	2	9	5	3	4	8
5	3	9	1	7	8	2	6	7
1	8	7	7	6	2	9	5	3
7	2	6	5	3	9	8	1	4

## + Guardiako farmaziak, otsailak 23-martxoak 1

### Berango

**EGUIA.** Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00-13:30; eta eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

### Erandio

**ARRUTIA.** Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Egunero, 09:00-22:00.

**DIAZ.** Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

**GASTEARENA.** Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

**TEIJELO.** J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

### Getxo

**ALZOLA.** Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Egunero, 22:00-09:00.

**ARISTEGUI.** Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

**BARRENECHEA.** Alango, 7. ALGORTA. 944 600 043. Barikuan, 09:00-22:00.

**EZQUERRA.** Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

**GALARZA.** Aingeruaren etorbidea, 2. ALGORTA. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

**JIMENEZ.** Illeta kalea, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

**LOPEZ-LINARES.** Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

**MORON.** Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

**SARRIA.** Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

**ARRIOLA.** Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

**BAYANO.** Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; eta zapatuan, 10:00-22:00.

**ELLACURIA.** Andres Larrazabal kalea, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

**MOLINA.** Adiskidetasuna, 13. AREETA. 944 636 246. Domekan, 09:00-13:30.

**ANDRACA.** Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; eta zapatuan, 10:00-22:00.

**MONASTERIO.** Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00.

**NUÑEZ.** Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

### Gorliz

**ABURTO.** Itsasbide, 5. 946 775 452. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

**ROMERO.** Itsasbide, 20. 946 128 941. Barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz; zapatuan, 09:00-13:30.

### Leioa

**ANGULO.** Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Martitzenean, 09:00-22:00.

**NARDIZ.** Mendibile kalea, 1. Leioa. 944 800 484. Eguenean, 09:00-22:00.

**ORTEGA.** Artaza, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

**ONA.** Maiatzaren Bata, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan eta domekan, 09:00-22:00.

**SAN ANDRES.** Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

### Lemoiz

**GONZALEZ.** Portubidea kalea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

### Plentzia

**ARAMBURU.** Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00; eta martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

### Sopela

**DOLARA.** Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00; eguenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

**ITURBE.** Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00.

**ERAZO.** Loiola San Andres, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00; astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

**ZUMÁRRAGA.** Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00.

### Urduliz

**PARAMO.** Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00.



# HIRUKIRA OLGETAN

© Garbine Ubeda

SOLUZIOAK:



## Inauteriak

1 Zenbat lore daude?

2  3  4  5  6

2 Jende guztiaren artean, bi biki pare daude. Zein moztorro dute jantzita?

3 Aurkitu elementu hauek:



4 Topatu beste hauek ere:

Elur-panpina, hontza, piraten bandera, kapela mexikarra.

5 Irudiko cowboy-aren eta alboko honen artean 8 ezberdintasun daude. Ikusten dituzu?



## OsaTu

Marra baten bidez, lotu elur-panpina bakoitzari falta zaion elementua.



## Zazpikoa


Bila egizuz irudi bi hauen artean dauden zazpi ezberdintasunak.






# BAKOITZARI BEREA

Zuhaitz-enbor hauek ez dute gerizpe onik ematen. Zein da enbor bakoitzari dagokion gerizpea?




## ELUR-KRISTALAK

Elurra egin dezan, hotza eta hezetasuna beharrezkoak dira. Elur malutak izotz-zati txikiz osatuta daudelako. Izotz-zati txiki edo kristaltxo horiek oso bitxiak dira, oso forma ederrak hartzen dituzte, eta ez ei daude berdinak diren bi... Tira, hemen bai! Hemen, izotz-kristal bat errepikatuta dago. Zein?



## Dominoa

Ezagutzen duzu dominoaren jolasa? Bai, ezta? Osatu ilara hau fitxetan falta diren irudiak marraztuz.



## Lehiaketa: Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. **NON** eta **ZERI** ateratakoa den badakizu?




SARIA

Eskuz egindako **PAPINA** hau

HIRUKAZale algortar batek helarazi digu artilez eta kotoiz egindako panpina, hirukalagun txikiaren artean zozkatzeko.

Gura baduzu, martxoaren 6a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus) edo 944 911 337



## MARRAZTU ETA MARGOTU

Goxo-goxo lo dago Xapi gure katua. Zegaz egingo ote du amets?



## Flashback

# Romoko txapelkunak, Ibaiondon, 1954

Leioaren eta Getxoren arteko mugan zegoen Ibaiondo zelaia, bertan jokatu zen lehenengo Leioa txapelketa, 1954an; Erandioko, Leioako eta Getxoko futbol-taldeek parte hartu zuten. Romo taldea izan zen garaile, 25 urte inguruko zaleek osatzen zuten taldea, «ez profesionalek»; Felipe Sopenak akorduan duenez, «ez geneukan entrenamendurik; orduan, lan egin behar genuen eta!». Kamiseta zuriz jokatu zuten partida hura; gorri-beltza jantzi zuten, hurrengo urtean edo...

**Zutunik (ezkerretik eskumara):** Javier Arroyo (GB), Beatriz Las Heras, Felipe Sopena, Felix Mezo (GB), Jaime Díaz de Corcuera, Pedro Elorza (Atezaina. GB), Ramón Jáuregui (GB) eta Jose Mari Yoldi (Presidentearen beharrek egiten zituen. GB).

**Makurtuta:** Felipe Hernández (GB), Bitor Bilbao, Jose Luis Saratxo (GB), Jose Antonio Elorza (GB), Antón Las Heras eta Valentín Izquierdo.



© FELIPE SOPUERTA IÑURRATEGIK GETXOKO UDAL LIBURUTEGIARI UTZITAKO ARGAZKIA



## Uribitakora

### TESTUA

Iñigo Kortazar Elias

### DOINUA

*Nafarroako mendi gainetan*

### ARGAZKIA

Hodei Torres

### Uribitakoran parte hartu gura duzu?

Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek ipinitako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

## Bertso berriak ustrukuari jarriak...

Eskualdea aldatzen dabil,  
horrek badu garrantzia.  
Ikusiko da zein ote dugun  
hurrengoan herentzia.  
Hormigoi bako eraikina da  
gehienetan hobetsia,  
(e)ta Plentziako zubi zuriak  
badauka konpetentzia.

Aberatsa da koloreetan  
a zer nolako ilara!  
Egilea ez zaigu ibili  
zurikeriatan hara!  
Nondik (e)ta nora doan ikusi  
eta ondo errepara.  
Saihesbidea ez dugu txarra  
Plentziatik Barrikara.

Ekaitza dabil Barrikan eta  
barrikoztarrak penetan.  
Beste aldean pozik dabilta  
plentziarrak hondarretan.  
Baldintza hori bete behar da,  
natura dabil olgetan,  
ikusiko gura baldin badugu  
ustrukua hantxe bertan.



### Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua